

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planeko jardueren gida



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


DOKUMENTUAN ZEHAR NABIGATZEKO LAGUNTZA:

“EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. PLANEKO JARDUEREN GIDA”

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planeko jardueren Gida eduki-aurkibideen bidez egituratuta dago, dokumentuan nabigatzea ahalbidetzeko. Indize horiei esker, jarduerak **bilaketa-maila** desberdinetatik aurki daitezke:

- 1- ARDATZAK
- 2- PROGRAMAK
- 3- HELBURU ESTRATEGIKOAK
- 4- HELBURU OPERATIBOAK

Erabilerari dagokionez, bi **funtzionaltasun** nagusi nabarmendu behar dira:

- 1- Dokumentuan zehar mugitzeko eta nahi duzun informaziora iristeko, beharrezkoa da dagozkion lotura/estekak klikatzea (hiperestekak, granate kolorekoak). Horrela, erabiltzaileak arin eta erraz bilatuko ditu hautaturiko bilaketa-mailarekin bat datozen ekintzak.
- 2- Orrialde guztietan sinbolo bat egongo da , erabiltzaileari aurreko urratsera itzultzeko eta beste bilaketa bat egiteko aukera emateko.

Kontsultak egiteko helbidea: emakunde.estudios@ej-gv.es

SARRERA

BERDINTASUNAREN ALDEKO **GOBERNANTZA**
HOBETZEKO NEURRIAK

I. ARDATZA: EMAKUMEEN **JABEKUNTZA** ETA BALIOAK
ALDATZEA

II. ARDATZA: ANTOLAKUNTZA SOZIAL **ERANTZUKIDEA**

III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO **INDARKERIA**

Sarrera

Sarrera

Zertarako behar da jardueren gida? Helburuak eta arrazoiak

Jardueren gida hau euskal administrazioetarako bitarteko bat da, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Plana – IX. Legegintzaldiko Jarraibideak egitasmoaren barruan (aurrerantzean, V. Berdintasun Plana). Planaren helburua berdintasun arloko politika publikoen plangintza erraztea da.

Bosgarren Berdintasun Planeko kudeaketa ereduari buruzko kapituluaren nabarmentzen denez, beharrezkoa da ezarritako jarraibideek administrazio bakoitzak indarrean jarri beharreko planen diseinua eta lanketa errazteko bitartekoak ere jasotzea. Hain zuzen ere, «jardueren gida» aipatzen da, administrazio maila eta eremu bakoitzerako plangintza egoki bat egiteko beharrezko erreferentziak osatzeko bitarteko gisa.

Horrenbestez, jardueren gida hori berdintasun politiken diseinu eta plangintzarako laguntza material gisa defini dezakegu. Azken finean, V. Berdintasun Planean ezarritako eta adostutako helburu zein jarraibideak betetzeko administrazioek abian jarri beharreko estrategiak zehazteko esku-hartze ildo eta jardueren multzoa da gida, betiere administrazio horien eskuduntzan eta lurralde eremuetan oinarrituta.

Gida honen helburua esku-hartze eta jarduera ildoak proposatzea, prozedurak sortzeko bizigarri izatea, aukerak irekitzea eta esku hartzeak zehaztera animatzea da. Helburua ez da, inola ere, administrazio ezberdinen plangintza gaitasuna murriztea, gomendatutako jardueren erreferente bakar gisa ezartzeko inolako asmorik ez baitu gidak; plangintzak proposatu eta errazteko bitartekoa izan nahi du soilik.

Are gehiago, helburua etorkizunean gida hau hausnarketaren eta praktikaren ondorioz sortutako jarduera berriekin aberastea da. Horrenbestez, bitarteko erabat malgua da, garatzen joango diren ideia, iradokizun eta jardunbide onetara egokitzen joan beharko duena.



Nola landu da jardueren gida?

Katalogo hau osatzeko, EAEko berdintasun plangintzari buruz dauden hainbat informazio iturri erabili dira; horien jatorriaren atzean 1991. urtean indarrean jarritako *EAEko emakumeentzako ekintza positiboko lehen plana (1991-1994)* dago. Horrez gain, EAEko administrazioek berdintasun politikak garatzen ibilbide eta esperientzia oparoa dutela ere izan behar da kontuan.

Erabilitako oinarritzko iturrien artean honakoak nabarmen daitezke:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana – VIII. Legegintzaldiko Jarraibideak egitasmoan gomendatutako jarduerak. Bosgarren Berdintasun Planak harreman estua du aurrekoarekin, eta, ondorioz, bertako helburuetako askok laugarren planean ezarritakoekin bat egiten dute. Hori dela eta, bertan gomendatutako jarduerak jaso eta testuinguru berrira egokitutakoan, interesgarritzat jotzen bosgarren Berdintasun Planean jasotzea.
- Dagoeneko ezarri eta egiaztatu diren jarduerak. Emakundek urtero egiten duen *Euskal botere publikoen berdintasun arloko esku-hartze memoria* txostenean, Eusko Jaurlaritzako, foru aldundietako eta udaletako sailek beraien berdintasun plangintzak indarrean jartzerakoan garatutako esku-hartzeak biltzen dira. Memoria horietan jasotako jarduerak aztertu ondoren, esanguratsuenak atera eta honako jarduera gida egiteko erabili dira.
- Bosgarren Berdintasun Plana egiteko prozesuan berdintasun politiken garapenarekin zerikusia duten elkarteek eta gizarte ordezkariak proposatutako jarduerak.
- Askotariko dokumentazio iturriak. Hainbat iturri dokumentaletara ere jo dugu, batik bat informazioa beste eremu batzuetatik osatzea beharrezkoa zen arloetan. Erabilitako iturrien artean, kongresuetako agiriak, adituek argitaratutako artikuluak, hausnarketak eta gure erkidegotik kanpo indarrean jarritako esperientziak daude.



Nola dago egituratuta jardueren gida?

Jarduerak bosgarren Berdintasun Planaren egitura jarraituz ordenatu dira; hau da, lau kapitulutan. Lehen kapitulua berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak dira, eta, bertan, administrazio guztiei eragiten dieten zeharkako neurriak jasotzen dira. Beste hiru kapituluek hiru esku-hartze ardatzekin egiten dute bat, edo, nahiago bada, IX. legegintzaldirako proposatutako gizarte aldaketarako hiru eremurekin: emakumeen jabekuntza eta balioak aldatzea, antolakuntza sozial erantzukidea eta emakumeen aurkako indarkeria.

Ardatz bakoitzak landu beharreko arloak eta bete beharreko erronkak argitzen dituen hainbat programa ditu. Era berean, programa bakoitza helburu estrategikoekin osatuta dago, eta horiek plangintza erraztu eta antolatzeko xedea duten helburu operatiboekin. Hain zuzen ere, helburu operatiboetan kokatu eta adierazi dira agiri honetan proposatutako esku hartze eta jarduera ildoak.



BERDINTASUNAREN ALDEKO
GOBERNANTZA HOBETZEKO
NEURRIAK

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBETZEKO NEURRIAK

G.1- Udal esparruko administrazioetan eta nagusiki kapital publikoa duten enpresetan egindako berdintasun plan kopurua areagotzea.

G.2- Berdintasunerako unitate administratiboen kopurua handitzea.

G.3- Koordinazio egituren kopurua handitzea.

G.4- Genero ikuspegia duten estatistika eta azterlanen ehunekoa handitzea.

G.5- Genero ikuspegia txertatuta daukaten administrazioen trebakuntza jardueren ehunekoa handitzea, berdintasun alorreko prestakuntza ekintzen kopurua eta maiztasuna areagotzea, eta prestakuntza jasotzen duten taldeak dibertsifikatzea.

G.6.- Eplegu publikora sartzeko edo bertan igoerak lortzeko berdintasun printzipioarekin lotutako edukiak dituzten edo berdintasunari buruzko prestakuntza berezia eskatzen duten hautaketa prozesuen ehunekoa handitzea.

G.7- Aldizkari ofizialetan eta erakundeetako web orrietan hizkuntza eta gainontzeko komunikazio elementuak modu sexistan erabiltzen ez dituzten testuen ehunekoa gehitzea.

G.8- Genero eraginaren alde zuzeneko ebaluazioa aintzat hartzen duten eta berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen kopurua areagotzea.

G.9- Genero ikuspegia sartuta daukaten aurrekontu arauen eta programen ehunekoa handitzea, baita berdintasunerako aurrekontu berezituak dituzten administrazioen kopurua ere.

G.10- Beren diseinu, ebaluazio eta kudeaketa prozesuetan genero ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea, bereziki behar bereziak dituzten taldeak eta askotariko diskriminazioa jasateko arriskua dutenak aintzat hartuta.

G.11- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak txertatuta dituzten kontratuen, diru laguntzen eta hitzarmenen ehunekoa handitzea.

G.12- Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua duten epaimahaien ehunekoa handitzea.

G.13- Berdintasunerako parte hartze organoen kopurua handitzea, eta parte-hartze zein kontsulta prozesu eta organoetan ordezkapen orekatua areagotzea.



G.1- Udal e sparruko adm inistrazioetan e ta nagusiki kapital pu blikoa du ten enpresetan egindako berdintasun plan kopurua areagotzea.

- G.1.1 Berdintasun planik ez duten udalerriei Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeko 15.3 artikulua berdintasun plan edo programak lantzeko eta onartzeko beharra arautzen duela ezagutaraztea. Bitarteko ekonomikoak, teknikoak zein hezigarriak eskaintzea udalerriek berdintasun plangintzak lantzeko eta abian jartzeko aukera izan dezaten.
- G.1.2 Gehiengo batean kapital publikokoak diren, 250 langile baino gehiago dituzten eta berdintasun planik ez duten enpresei Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoko 45. artikulua berdintasun plana abian jartzeko beharra ezartzen duela jakinaraztea. Lege berak jasotako kasuetakoren batean egon daitezkeen sektore publikoko gainontzeko ordezkariak agindu horren berri ematea. Berdintasun plan horiek lantzeko eta abian jartzeko aholkularitza teknikoa ematea.
- G.1.3 *Berdintasun planen diseinu, kudeaketa eta ebaluazio gida* (Eudel-Emakunde 2008) egokitzea eta EAEko udalen artean hedatzea.
- G.1.4 Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko euskal udalerrien sarearen (Berdinsarea) barruan lantaldeak osatzea berdintasun planak dituzten eta ez dituzten udalen artean; helburua planak dituztenek ez dituztenei laguntza ematea da, baita beraiantzako eredu izatea ere.
- G.1.5 Udalerri txikiek eta mankomunitateek berdintasun planak elkarrekin egitea errazteko metodologiak diseinatzea, betiere dauden bitartekoak optimizatzeko asmoz.

G.2- Berdintasunerako unitate administratiboan kopurua handitzea.

- G.2.1. Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea oraindik ezarri ez dituzten administrazioetan.
- G.2.2. Mankomunitateetan eta udalerri txikietan berdintasunerako unitate administratibo iraunkorrak sortzeko bitartekoak bideratzea.
- G.2.3. Berdintasun agenteen lan baldintzak hobetzea, bai beren lanpostuen jarraikortasun eta egonkortasuna sustatuz, bai udalekin dituzten kontratu harremanak, posizio organikoa, harreman funtzionala, kokapen fisikoa eta abar hobetuz.
- G.2.4. Berdintasun unitateak gaur egun garatzen ari diren prozesuak eta horiek berdintasun helburuak lortzeko bidean duten eragina agerian



jartzea ahalbidetzen duten analisiak egitea. Berdintasun unitateek beren zereginen garatzen dituzten lan estrategiak, arrakasta faktoreak eta eragozpenak aztertzeke eta hobetzeko gakoak eskaintzen dituzten lantaldeak sortzea

- G.2.5. Berdintasun politikarekin lotutako lanpostuak sortzea, betiere gainontzeko agenteekin elkarrizketa gaitasun egokia izatea ahalbidetuko duen posizio organiko eta harreman funtzionalarekin. Berdintasun agentearen irudia posizio organiko egoki batean kokatu duten eta jarduera esanguratsuak garatzen ari diren udalei errekonozimendua egitea.

G.3- Koordinazio egituren kopurua handitzea.

- G.3.1. Egun diren koordinazio bitartekoak aztertzea eta eraginkorragoak izan daitezkeen ezar daitezkeen hobekuntzak zehaztea. Koordinazio egituren funtzionamendua egokia izan dadin metodologiak eskaintzea.
- G.3.2. Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko euskal udalerrien sarearen (Berdinsarea) bitartez udal arteko koordinazioaren eraginkortasuna hobetzea, berdintasunerako unitate administratiboei laguntza hobea eman ahal izateko bitartekoak, metodologiak eta lan tresnak eskainiz.
- G.3.3. Hausnarketa prozesu bat abian jartzea udal txikietan eta mankomunitateetan koordinazio mekanismoak sortzeko edo, aldez aurretik baldin badaude, hobetzeko.
- G.3.4. Udal eta foru mailan elkarlan akordioak eta esku-hartze protokoloak lantzeko eta ezartzeko laguntza teknikoa eskaintzea emakumearen aurkako indarkeriaren arloan.
- G.3.5. Berdintasun planen helburuen artean sail arteko koordinazioa bultzatzeko egitura edo mekanismo baten sorrera aurreikustea.
- G.3.6. Emakumearen aurkako indarkeriaren arloan udal eta foru mailako protokoloak lantzeko eta ezartzeko foru aldundiekin, udalekin eta mankomunitateekin elkarlanean aritzeko Gobernuko sailtako erreferentziazko pertsonen identifikazioa eguneratu eta hedatzea.
- G.3.7. Berdintasun arloan espezializatutako edo berdintasun arloko politikaren ezarpenarekin zerikusia duten erakundeekin (bai Estatukoak bai nazioartekoak) elkarlanean aritzeko lan mekanismo eta metodologiak ezartzea, besteak beste praktika onen, esperientzien, txostenen eta abarren trukea bideratzeko bideak ezarriz.



G.4- Genero ikuspegia duten estatistika eta azterlanen ehunekoa handitzea.

- G.4.1. Estatistika ofizialak genero ikuspegitik berraztertzeke lantalde bat sortzea adierazle berriak, esplotazio zehatzak eta gizonen eta emakumeen ezberdintasunen, beharren eta interesen informazioa hobetzeko taula espezifikokoak sartzeko helburuarekin, betiere askotariko diskriminazioa sor dezaketen beste aldagai batzuk kontuan izanik.
- G.4.2. Genero ikuspegia sartzeko lehentasuna duen azterlanak eta estatistikak identifikatzea.
- G.4.3. Estatistiketan eta azterlanetan genero ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen azaltzeko laguntza tekniko eta trebakuntza ematea, batik bat nola egin daitekeen eta egin behar den azalduz, betiere diskriminazio anizkoitza sor dezaketen aldagaiak kontuan izanik.
- G.4.4. Sektorekako genero adierazleen oinarri dokumentala sortzea bosgarren Berdintasun Planean aurkeztutakoa osatzeko, jardunbide onak biltzea eta administrazioko langileen artean hedatzea.
- G.4.5. Azterlan eta estatistiken ziklo osoan genero ikuspegia txertatzeak zer eragin dituen argitzeko jarraibideak lantzea; hau da, laginen plangintzan, sexuka bereizitako datuen bilketan, aldagaien aukeraketa eta analisisan, eta, azkenik, politiken gomendioetan, betiere diskriminazio anizkoitza sor dezaketen aldagaiak kontuan izanik.
- G.4.6. Erakundeek beren estatistikak eta azterlanak Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean adierazitako berdintasun printzipiora egokitzeko betebeharra jarraitzen duten ikuskatzea eta ebaluatzea.

G.5-Genero ikuspegia txertatuta daukaten administrazioen trebakuntza jardueren ehunekoa handitzea, berdintasun alorreko prestakuntza ekintzen kopurua eta maiztasuna areagotzea, eta prestakuntza jasotzen duten taldeak dibertsifikatzea.

- G.5.1. Egun indarrean diren berdintasun arloko trebakuntza planak garatzea eta oraindik ere trebakuntza planak ez dituzten erakundeetarako egitasmoak diseinatzea eta onartzeko bitartekoak eta metodologiak bideratzea.
- G.5.2. Euskal administrazioetako trebakuntza plan orokorrean genero ikuspegia sartzeko aholkularitza tekniko ematea eta plan horien jarraipena egitea, betiere berdintasun printzipiora egokitzen direla eta emandako trebakuntza administrazioaren jardueretan genero ikuspegia sartzeko orduan eraginkorra dela bermatzeko asmoz.



- G.5.3. Berdintasun planen kudeaketarako ekintza-trebakuntza metodologia jarraitua indarrean jartzea bere diagnosi, plangintza, ezarpen eta ebaluazio faseetan.
- G.5.4. Berdintasunerako trebakuntza planen jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ezartzea berdintasun arloko ezagutza praktikoaren eraginkortasuna areagotzeko eta plan horiek lanpostu jakinetan nola ezar daitezkeen ezagutzeko, betiere administrazioaren jardueretan genero ikuspegia sartzeko asmoz.
- G.5.5. Ardura politikoak dituzten pertsoneri trebakuntza saiok eskaintzea genero *mainstreaming*a eta berdintasun arloko ekintza positiboaren garapena sustatzeko.
- G.5.6. Genero ikuspegia zein trebakuntza jarduera orokorretan txertatzeak duen lehentasuna identifikatzea, horretarako prozedura eta materialak sortuz.
- G.5.7. Genero gaietan zein esku-hartze publikoko eremuetan adituak diren irakasle espezialisten datu-basea sortzea (adibidez, generoan eta hirigintzan adituak, generoan eta komunikazioan espezialistak eta abar).

G.6. Enplegu publikora sartzeko edo bertan igoerak lortzeko berdintasun printzipioarekin lotutako edukiak dituzten edo berdintasunari buruzko prestakuntza b erezia eskatzen duten h autaketa prozesuen eh unekoa handitzea.

- G.6.1. Gai zerrendan berdintasunarekin lotutako edukiak ez dituzten euskal administrazio publikoetako aukeraketa prozesuak identifikatzea.
- G.6.2. 4/2005 Legeak ezarri bezala, EAeko administrazio publikoetako aukeraketa prozesu guzti-guztiek gai-zerrendan berdintasunarekin lotutako edukiak izatea bermatzeko mekanismoak zehaztea.
- G.6.3. Berdintasunean espezializatutako euskal administrazioiko lanpostu teknikoak izan arren horiek eskuratzeko edo igoerak lortzeko berdintasun arloan esperientzia edo/eta prestakuntza espezifiko izatea eskatzen ez duten aukeraketa prozesuak identifikatzea, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritakora egoki daitezen mekanismoak zehaztea.
- G.6.4. Berdintasunean espezializatutako euskal administrazioiko lanpostu tekniko guzti-guztiak eskuratzeko edo igoerak lortzeko aukeraketa prozesu denek berdintasun arloan esperientzia edo/eta prestakuntza espezifiko izatea ezartzen dutela bermatzeko mekanismoak zehaztea.



G.7- Aldizkari ofizialetan eta erakundeetako web orrietan hizkuntza eta gainontzeko komunikazio elementuak modu sexistan erabiltzen ez dituzten testuen ehuneko gehitzea.

- G.7.1. Aldizkari ofizialetan zein erakundeen web orrietan hizkuntza eta gainontzeko komunikazio elementuak modu sexistan erabiltzen ez direla bermatzeko lan prozesuak ezartzea.
- G.7.2. Hizkuntzaren eta komunikazioaren erabilera ez sexistari buruz dauden gidak hedatzea.
- G.7.3. Aholkularitza juridikoko zerbitzuetako edo sailetako langileei, komunikazio arduradunei eta web orrien sorkuntza eta koordinazio arduradunei hizkuntza eta gainontzeko komunikazio bitartekoak modu ez sexistan erabiltzeko trebakuntza ematea.
- G.7.4. EAEko administrazioak hizkuntza eta komunikazioa modu sexistan erabil ez ditzaten sentibilizazio lana egitea kanpainak, dibulgazio materialak, ikastaroak edo txarлак erabiliz.

G.8- Genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa aintzat hartzen duten eta berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen kopurua areagotzea.

- G.8.1. Generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioen jarraipena egiteko mekanismoa garatzea bertan aurreikusitako neurri zuzentzaileak ezartzen direla bermatzeko.
- G.8.2. Generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioak egiteaz arduratzen diren euskal administrazioetako langileei beharrezko metodologia, analisi eta berezitasunetan trebakuntza ematea.
- G.8.3. Generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioak behar bezala egiteko laguntza materialak sortzea, adibidez gidak, protokoloak, *check-listak*...
- G.8.4. Udal eta foru instantzietan, generoaren araberako alde aurreko eraginaren ebaluazioa nahitaez behar duten arau edo administrazio ekintzak zehaztea.
- G.8.5. Udal eta foru administrazioetan generoaren araberako alde aurreko eraginaren ebaluazioak egiteko jarraibideak ezartzea eta hedatzea.
- G.8.6. Generoaren araberako alde aurreko eraginaren ebaluazioak egin diren arauekin, ezarritako neurri zuzentzaileekin eta berdintasuna sustatzeko neurriekin datu-base bat sortzea, erreferentzia gisa eta laguntza material gisa erabil daitezzen.



G.9- Genero ikuspegia sartuta daukaten aurrekontu arauen eta programen ehunekoa handitzea, baita berdintasunerako aurrekontu berezituak dituzten administrazioen kopurua ere.

- G.9.1. EAEko administrazioetan berdintasun plan eta politikak garatzeko aurrekontu sail espezifikoak esleitzea urtero.
- G.9.2. EAEko administrazioen urteroko aurrekontuak genero ikuspegi batetik egitea, aukera berdintasuna sustatzen duten neurriak ezarriz.
- G.9.3. Ardura politikoak dituztenek eta teknikariek aurrekontu publikoak berdintasun arloan neutralak ez direla uler dezaten sentsibilizazio lana egitea, baita aurrekontuek desberdintasunak arindu eta berdintasuna sustatzeko duten potentzialtasuna ezagutarazteko ere.
- G.9.4. Ardura politikoak dituzten pertsonak eta teknikariak trebatzea aurrekontu publikoak genero ikuspegiarekin egin ditzaten.
- G.9.5. Erakunde arteko edo sail arteko lantaldeak sortzea, genero ikuspegidun aurrekontuak egiteak zer esan nahi duen erakusten duten ezagutzak, bitartekoak, irizpideak eta jardunbide egokiak partekatzeko.
- G.9.6. Aurrekontu publikoak berdintasun printzipiora egokitzeko hartutako neurriak publikoki hedatzea.
- G.9.7. Aurrekontu publikoek gizon eta emakumeengan duten eragin ezberdina ulertzea errazten duten metodologia eta bitartekoak garatzea.

G.10- Beren di seinu, e baluazio e ta kudeaketa prozesuetan genero ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea, bereziki behar bereziak dituzten taldeak eta askotariko diskriminazioa jasateko arriskua dutenak aintzat hartuta.

- G.10.1. EAEko administrazioetan plan hauek egiteko, indarrean jartzeko eta jarraitzeko ardura duten politikari eta teknikarientzako trebakuntza jarduerak garatzea, betiere genero ikuspegidun diagnostikoak, plangintzak, esku hartzeak eta ebaluazioak egiteko gaitasuna garatzeko asmoz.
- G.10.2. Plan sektorial eta zeharkakoetan genero ikuspegia sartzeko moduak ezagutarazteko taldeak sortzea, betiere askotariko diskriminazioa sor dezaketene beste aldagai batzuk kontuan izanik. Prozedura eta bitartekoak lantzea eta praktika onak hedatzea.



- G.10.3. Plan sektorialak eta transbertsalak egiteko ardura duten langileen eta berdintasun politiken arduradunen arteko koordinazio mekanismoak sortzea.
- G.10.4. Zeharkako politika publikoetan genero ikuspegia sartzeko metodologiak sortzea, betiere orain artean egindako ibilbidea eta indarrean den legegintzaldiko helburuak kontuan izanik.
- G.10.5. Behar bereziak dituzten edo askotariko diskriminazioa egoeran dauden edo izateko arriskuan dauden kolektiboetan eragina duten planak identifikatzea berdintasun ikuspegia ardatz hartuta arreta zehatzagoa emateko.

G.11- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak txertatuta dituzten kontratuen, diru laguntzen eta hitzarmenen ehunekoa handitzea.

- G.11.1. Euskal administrazioetako teknikariei eta politikariei trebakuntza ematea kontratuetan, diru laguntzetan eta hitzarmenetan genero ikuspegia txerta dezaten.
- G.11.2. Genero ikuspegia kontuan izan duten kontratu, diru laguntza eta hitzarmen kopurua identifikatzea. Horietan erabilitako irizpideak biltzea aplikazio erreferente izan daitezten.
- G.11.3. Kontratazioan, diru laguntza emakidetan eta hitzarmenetan sartzeko arau eta jarraibideak diseinatu eta hedatzea eta horiek behar bezala ezartzen direla jarraitzea.
- G.11.4. Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoko kontratazioetan gizarte, ingurumen eta beste politika publiko batzuetako irizpideak sartzeari buruzko Gobernu Kontseiluaren 6/2008 Ebazpena hedatzea.

G.12- Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua duten epaimahaien ehunekoa handitzea.

- G.12.1. Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua ez duten sariak emateko aukeratutako epaimahaiak eta funts kultural edo/eta artistikoak eskuratzeko gaitutako organoak identifikatzea eta desoreka hori zuzentzeko prozedurak ezartzea.
- G.12.2. Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua ez duten aukeraketa epaimahaiak identifikatzea eta desoreka hori zuzentzeko prozedurak ezartzea.



- G.12.3. Epaimahaien osaketan eragina duten aldagaiak zehaztea eta emakumeen eta gizonen arteko oreka areagotzeko beharrezko prozedurak sortzea.
- G.12.4. Genero ikuspegia ezartzearen beharra premiazkoagoa den epaimahaiak identifikatzea esku-hartze mekanismoei lehentasuna emateko.

G.13- Berdintasunerako parte hartze organoen kopurua handitzea, eta parte-hartze zein kontsulta prozesu eta organoetan ordezkapen orekatua areagotzea.

- G.13.1. Berdintasun batzordeak edo emakumeen eta berdintasun politiketan inplikaturako elkarten parte-hartzea sustatzeko antzeko beste organo batzuk sortzea oraindik ezarri ez dituzten administrazioetan.
- G.13.2. Egun dauden berdintasun batzordeak aztertzea eta horien parte-hartze eta eraginkortasun maila areagotzea ahalbidetuko duten hobekuntza eremuak zehaztea.
- G.13.3. Askotariko diskriminazio egoeran dauden emakumeek berdintasun batzordeen berri izateko eta horietan parte hartzeko neurriak ezartzea.
- G.13.4. Emakumeek eta elkarteetan antolatuta ez dauden herritarrek berdintasun politikari buruzko informazioa jasotzeko eta horietan parte hartzeko aukera izateko prozedurak ezartzea.
- G.13.5. EAEko administrazioek sustatutako organoak eta kontsultarako eta parte hartzerako prozesuak identifikatzea, parte-hartzaileen osaketa sexuaren arabera aztertzea eta horietan eta zuzendaritza taldeetan emakume eta gizonen partaidetza orekatua izateko neurriak indarrean jartzea.
- G.13.6. Emakumeek eta emakume elkarteek parte hartze prozesuetan edo eragile sozio-politikoekin izan beharreko interlokuzio lanetan parte-hartze handiagoa izateko dituzten ezagutzak, gaitasunak, trebetasunak eta abar sustatzea.
- G.13.7. Aholkularitza eta parte hartze prozesuetan erabilitako prozedura ohikoak (deialdiak, material bidalketak, agirien aurkezpenak...) aztertzea, horietan parte hartzen duten emakume edo emakume elkarteak identifikatzeko eta kopuru hori areagotzeko neurriak abian jartzeko.



I. ARDATZA: EMAKUMEEN JABEKUNTZA ETA BALIOAK ALDATZEA

I. ARDATZA: EMAKUMEEN JABEKUNTZA ETA BALIOAK ALDATZEA

1. PROGRAMA: AUTONOMIA PERTSONALA ETA BALIOAK ALDATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOA: 1.1 EMAKUMEEN AUTONOMIAREN GARAPENA ETA GENERO KONTZIENTZIA BULTZATZEA

- 1.1.1 Autonomia, independentzia eta erabakiak hartzeko botere handiagoa dutela nabari duten emakumeen kopurua handitzea.
- 1.1.2 Bizitzaren hainbat alorri (osasuna, lana, prestakuntza, aisia) buruzko erabakiak hartzean, irizpideen, interesen eta beharren arabera informazio eta gaitze prozesuak gauzatzen dituzten emakumeen kopurua handitzea.
- 1.1.3 Bere burua zaintzeko ohitura duten (behar pertsonaletara eta bizitza estilora egokitutako elikadura orekatua, jarduera fisiko pozgarria, arrisku jarrerak murriztea, besteen artean) emakumezko umeen, gazteen eta helduen kopurua handitzea.
- 1.1.4 Nahi gabeko haurdunaldiak ekidin eta afektibitate-sexu harremanak eta jokabideak beren behar eta interesetara egokitzen dituzten –betiere, aniztasun sentimentaletik eta sexualetik– emakumezko gazteen eta helduen kopurua handitzea.

HELBURU ESTRATEGIKOA: 1.2 BALIOEN ALDAKETA BULTZATZEA, SEXUAREN ARABERAKO ROL SOZIALAK ETA ESTEREOTIPOAK DEUSEZTATUTA

- 1.2.1 Erantzukizun ekonomikoa gizonekin eta familiaren ardura emakumeekin lotzen duten umeen, gazteen eta helduen kopurua murriztea.
- 1.2.2 Enpleguaren arloan rola sexuaren arabera esleitzen dituzten neska, mutil, gazte eta helduen kopurua murriztea (sexuaren arabera kategoriatan profesional, funtzio eta lan-esparruen asigrazioa).
- 1.2.3 Gazteek eta helduek etxeko lanak eta zaintza gizarte behar bezala hartzea, eta arlo horretan gizonek, erakundeek, merkatuak eta gizarte zibilak ere parte hartu behar dutela ikustea.



- 1.2.4 Berdintasunaren aldeko pertsona proaktiboek kopurua handitzea, bereziki adingabeen kargu badaude edo adingabeentzat eredu badira, eta berdintasunaren alde dauden gizon gazteen zein helduen kopurua handitzea.
- 1.2.5 Sail guztiak barne hartzen dituen lanerako printzipio moduan, urteko lan programetan hezkidetzaz sartzen duten ikastetxe formalek eta ez formalek kopurua handitzea.

2. PROGRAMA: B ALIABIDE E KONOMIKOAK E TA SOZIALAK I ZATEA E TA KONTROLATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOA: 2.1 EMAKUMEEN LANERATZEA ETA LAN BALDINTZAK ETA MAILAZ IGOTZEKO AUKERAK HOBETZEA, TALDEEN ETA EGOEREN ANIZTASUNA KONTUAN HARTUTA

- 2.1.1 Emakume taldeen okupazio tasa handitzea, kalitatezko lanpostuetan (mugagabeak eta lanaldi osokoak) lan egiten dutenen kopurua areagotuz. Lehentasunezkoa da:
 - Zientzia, teknologia, ekonomia eta finantza alorretan emakume ikertzaileen kopurua handitzea
 - IT teknologiako sektore aurreratuenetan eta intentsiboetan lan egiten duten emakumeen kopurua handitzea.
- 2.1.2 Enplegua eta autoenplegua sustatzen duten emakumeen kopurua handitzea, baita beren proiektuen bideragarritasuna ere; hots, emakumeek sortutako enpresek lanean ematen duten urteko kopurua, lehiakortasuna eta nazioartekotasuna areagotzea.
- 2.1.3 Emakumeen eta gizonen batez besteko urteko soldata gordinen arteko aldea txikitzea, batez ere, aldea handiena den sektoreetan.
- 2.1.4 Lantokietan mailaz igotzeko aukera duten emakumeen ehunekoa handitzea, batik bat, feminizatutako sektoreetan.
- 2.1.5 Emakume behartsuenen lan baldintzak eta estaldura soziala hobetzea, bereziki lehenengo sektorean lan egiten dutenenak, etxeko lanak egiten dituztenenak eta ezkutuko ekonomian lan egiten dutenenak.
- 2.1.6 Neska-mutilen ikasketak aukeratzeko garaian sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa murriztea, eta lehentasuna ematea sexuen arabera aldea handiagoa duten ikasketei edota etorkizunerako aukera gehiago ematen dituztenei.



- 2.1.7 Enpresa pribatuetan berdintasunerako planen kopurua gehitzea.

HELBURU ESTRATEGIKOA: 2.2 POBREZIA EDOTA BAZTERKETA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEN EGOERA HOBETzea

- 2.2.1 Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen ehunekoa murriztea.
- 2.2.2 Emakumeen jarduera tasa handitzea eta enplegua uzten duten emakumeen tasa murriztea.
- 2.2.3 Erakundeek eskainitako erantzunak eta baliabideak baztertzeko arriskuan dauden emakumeen beharretara hobeto egokitzea (zerbitzu sozialak, ekonomikoak, osasuna, hezkuntza, enplegua, justizia, segurtasuna eta etxebizitza).

HELBURU ESTRATEGIKOA: 2.3 BALIABIDE SOZIALAK ESKURATZEKO AUKERA HANDITzea, BATEZ ERE, DISKRIMINAZIO ANITZEKO EGOEREI DAGOKIENEZ

- 2.3.1 Teknologia berriak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua handitzea; bereziki, nagusien artean eta horretarako zailtasunak dituzten taldeen artean.
- 2.3.2 Kolektiboen eta beharren aniztasunari egokitutako garraio eta ekipamendu publikoaren estaldurarekin pozik dauden emakumeen kopurua handitzea, batez ere, landa eremuetakoena.
- 2.3.3. Osasun-baliabideak emakumeen beharretara hobeto egokitzea eta baliabide horietan genero-ikuspegia lehentasunez barneratzea:
 - Osakidetzaren plan, programa eta protokoloen genero azterketa gauzatzea eta osasunarekin loturiko esku-hartzeetan genero-ikuspegia barneratzeko neurriak proposatzea;
 - Sexu eta ugalketa osasunaren hobekuntza sustatzea.
 - Utero-lepoko minbiziaren prebentzioa eta bularreko minbiziaren diagnostikatu zaien emakumeei ematen zaien arreta hobetzea.
 - Genero-baldintzatzaileekin loturik, emakumeek pairatzen dituzten buruko osasun-arazoaren gainean arreta hobea sustatzea.
 - Diskriminazio anitzeko egoeran dauden emakumeen osasuna hobetzearen alde egitea.
- 2.3.4. Emakumeek kirol baliabideak erabiltzeko dituzten aukerak areagotzea, eta kontuan hartzea taldeen aniztasuna eta beharrak, bereziki:
 - Ariketa fisikoa egiten duten eta kirola praktikatzen duten emakumeen ehunekoa handitzea, bereziki emakume gazteenen kasuan.
 - Emakumeek kirolerako eta aisialdirako espazioetan gusturago egotea, eta gune horiek haien beharretara egokitzea.
- 2.3.5. Ekoizpen kultural eta artistikoko lekuetan emakumeen presentzia ahanditzea, kulturaren arlo eta maila guztietan, eta emakumeen sarbidea eta emakume taldeen gogobetetzea areagotzea arlo horiek haien beharretara, gustuetara eta interesetara egokitzeari dagokionez.



3. PROGRAMA: PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

HELBURU ESTRATEGIKOA: 3.1 EMAKUMEEK ELKARTEEN MUGIMENDUA ETA HORRETAN PARTE HARTZEA BULTZATZEA

- 3.1.1 Berdintasunaren alde lan egiten duten emakumeen elkarteetako kopurua eta elkarteetan parte hartzen duten kideen kopurua handitzea.
- 3.1.2 Elkarte mugimenduko hainbat taldetan, bereziki, sindikatuetan, alderdi politikoetan eta enpresen erakundeetan parte hartzen duten emakumeen (bereziki diskriminazio anitza jasaten dutenak) kopurua handitzea.
- 3.1.3 Alor politikoan eta sozialean parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula berrien bidez, esaterako, sareak sortuta edo sareetan kolaboratuta.
- 3.1.4 Egitarauetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua handitzea.

HELBURU ESTRATEGIKOA: 3.2 ERABAKI ETA ERAGIN ALORRETARAKO IRISMENA HANDITZEA

- 3.2.1 Sektore publikoko zuzendaritza postuetan emakumeen presentzia handitzea, bereziki, desoreka handiena dagoen alorretan.
 - Horien artean, hurrengo hauek dute lehentasuna: -Ekonomikoak, finantzarioak eta enpresakoak.
 - Unibertsitatea eta ikerketa erakundeak.
 - Erakunde akademikoak, artistikoak eta kulturalak.
- 3.2.2 Sektore pribatuko enpresetako erabaki alorretan eta zuzendaritza postuetan dauden emakumeen kopurua handitzea"
- 3.2.3 Elkarte mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetako eta erakunde politikoetako erabaki postuetan dauden emakumeen kopurua handitzea.



1. PROGRAMA: AUTONOMIA PERTSONALA ETA BALIOAK ALDATZEA

HELURU ESTRATEGIKOA: 1.1 EMAKUMEEN AUTONOMIAREN GARAPENA ETA GENERO KONTZIENTZIA BULTZATZEA

1.1.1 Autonomia, independentzia eta erabakiak hartzeko botere handiagoa dutela nabari duten emakumeen kopurua handitzea.

- 1.1.1.1 Emakumeentzako jabeakuntza ikastaroak sortzea sustatu eta diruz laguntzea.
- 1.1.1.2 Elkarteek emakumeen jabeakuntza eta bere garrantzia sustatzeko egindako jarduerak eta horien berri ematea diruz laguntzea.
- 1.1.1.3 Arreta psikologikoko zerbitzu publikoetako langileei beraien esku hartzeetan genero ikuspegia kontuan izateko trebakuntza ematea, betiere zerbitzu horiek erabiltzen dituzten emakumeen autonomia pertsonaleko bitarteko psikologikoak areagotzeko asmoz.
- 1.1.1.4 Gizarte zerbitzuetan, lan zerbitzuetan eta emakumeen jabeakuntzarekin lotutako gainontzeko zerbitzuetan lan egiten dutenei trebakuntza ematea, emakumeen jabeakuntza areagotzeko zerbitzu eta bitartekoak ezagut ditzaten eta horien berri emateko aukera izan dezaten, baita emakumeak zerbitzu horietara zein kasutan bidali behar dituzten diagnostika dezaten eta hori egiteko metodologiak beregana ditzaten ere.

1.1.2 Bizitzaren hainbat alorri (osasuna, lana, prestakuntza, aisia) buruzko erabakiak hartzean, irizpideen, interesen eta beharren araberako informazioa eta gaitze prozesuak gauzatzen dituzten emakumeen kopurua handitzea.

- 1.1.2.1 Administrazioek emakumeek beren autonomia pertsonala hobetzea, genero kontzientzia hartzea eta beren autonomia garatzea helburu duten jarduerak eta ikastaroak egitea, sustatzea eta diruz laguntzea.
- 1.1.2.2 Elkarteetako kide ez diren pertsonen jabeakuntza pertsonala, emakumeen autonomia edo genero kontzientzia sustatzea helburu duten jarduerak antolatzea erraztea.
- 1.1.2.3 Ikasleen guraso elkarteek emakumeen jabeakuntza, emakumeen autonomia, eta autonomia eta independentzia pertsonala amaren



rolean integratzea sustatzea helburu duten ikastaroak bultzatu eta diruz laguntzea. Kontuan izan behar da horrelako ekimenak oso garrantzitsuak direla, haurren garapenean eredugarri suertatzen baitira.

- 1.1.2.4 Administrazioetan bizi eremu ez berdinen gaineko orientazioa eta arreta emateko dauden zerbitzu eta baliabideen inguruko sentsibilizazio eta informazio kanpaina espezifikoak egitea emakumeentzat.
- 1.1.2.5 Osasunaren arloan lan egiten duten pertsona guztiek Osasunerako Mundu Erakundeak lesbianismoari, bisexualitateari eta transexualitateari buruz eskaintzen duen informazio guztia eskura izan dezaten bermatzea, baita lesbianismoa, bisexualitatea eta transexualitatea prebentziozko osasun neurrietan eta ginekologian kontuan izatea ere.
- 1.1.2.6 Transexualitatea patologia bezala ez hartzea eta genero identitatearen desorekak Buruko Gaitzen Diagnosi eta Estatistika Gidatik (DSM) kentzea sustatzea.

1.1.3 Bere burua zaintzeko ohitura duten (behar pertsonaletara eta bizitza estilora egokitutako elikadura orekatua, jarduera fisiko pozgarria, arrisku jarrerak murriztea, b estean a rtean) emakumezko u meen, g azteen et a helduen kopurua handitzea.

Elikadura:

- 1.1.3.1 Erakundeen arteko kolaborazioa eta koordinazioa sustatzea eta emakumearen edertasunaren eredu tradizionalen azterketa kritikoa egiteko ehundura soziala sortzea, komunikabideetan eta «emakumeentzako» aldizkarietan protokolo etiko bat kontuan izanik jardun dezaten, guztia ere emakumeen osasuna zaintzeko helburuz.
- 1.1.3.2 Ikerketa epidemiologikoak sustatzea, elikaduraren inguruko jarrera nahasteen benetako eraginak eta arrazoiak jakiteko.
- 1.1.3.3 Elikadura ohituretako nahasteak prebenitzeko eta zaintzeko esku-hartze integrala garatzea, alderdi fisikoak zein psikikoak kontuan hartuta, baita sozialak ere.
- 1.1.3.4 Elikadura nahasteen arriskuen inguruan hezkuntza arautuko zein arautu gabeko kolektibo profesionalak eta familiak trebatzea haien garaiz hautemateko irizpideen inguruan, bai eta garaiz esku hartzeak duen garrantziaren inguruan ere.
- 1.1.3.5 Familiei elikadura ohitura osasungarriak harraraztea, gizon-emakumeek dituzten portaera desberdintasunen inguruan sentsibilizatuta eta horietatik sor daitezkeen arazoak berri emanda.



- 1.1.3.6 Haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako osasun programetan elikadura tailerrak txertatzea, neska-mutilen elikadura ohiturek dituzten aldeak genero ikuspegia kontuan hartuta lantzeko, gorputzaren kultura eta irudiaren azterketa egiteko eta gizarteak ezarrita dituen edertasun idealen inguruko ikuspegi kritikoa sustatzeko.
- 1.1.3.7 Hezkuntza arautuaren eta arautu gabearen esparruan elikadura nahasteen, bizitzeko ohitura osasungarrien eta abarren inguruko hitzaldiak eta tailerrak antolatzea.
- 1.1.3.8 Elikadura nahasteak izan dituzten emakumeen elkarteei laguntza ematea eta beren jarduna diruz laguntzea.
- 1.1.3.9 Ezaugarri mota desberdinak dituzten emakumeen elikadura nahasteak arrakastaz tratatutako kasuen berri ematea (hainbat klase sozialetakoak, ez gaitasunak dituztenak, etorkinak, adinaren arabera...), erreferentzia ereduak sortzeko helburuarekin.

Jarrera arriskutsuak:

- 1.1.3.10 Emakumeen droga-mendetasunaren ezaugarri espezifikoak aztertzea: arrazoiak, agerpenak, tratamenduak eta abar. Ondoren, osasungintzaren alorreko profesionalen kolektiboei helaraztea, bai protokoloak berrikusita, bai trebakuntza jardunaldiak zein ikastaroak antolatuta.
- 1.1.3.11 Droga-mendetasuna genero ikuspegia kontuan hartuta lantzen duten elkarteak ezagutaraztea eta diruz laguntzea.
- 1.1.3.12 Alkoholaren eta tabakoaren kontsumoan dagoen genero tartea emakumeek gero eta gehiago kontsumitzen dutelako murrizten ari dela jakinaraztea eta horren gaineko sentsibilizazioa egitea (eta ez gizonezkoek gero eta gutxiago kontsumitzen dutelako). Automedikazioa saihesteko kanpainak egitea, batez ere psikofarmakoei eta barbiturikoei dagokienez.
- 1.1.3.13 Psikofarmakoen eta barbiturikoen erabileraren inguruko azterketak egitea genero ikuspegia kontuan hartuta. Arreta berezia ipiniko zaie gizonezkoen eta emakumezkoen artean egiten diren diagnostikoen arteko desberdintasunei, bai eta esparru horretako diskriminazioa saihesteko protokoloak bilatzeari ere.

Kirola:

- 1.1.3.14 Lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan kirol eskaintza dibertsifikaraztea eta diruz laguntzea; hezkuntza arautu gabearen kasuan, nesken zaletasunak eta eskariak kontuan izanda.



- 1.1.3.15 Emakume nagusiek kirola egin dezaten sustatzea, beren beharrei eta interesei erantzungo dieten eskaintza dibertsifikatua bilduko duten espazio eta ikastaro gehiago eskainita.
- 1.1.3.16 Emakumeek kirol gehiago egin dezaten sustatzeko kanpaina instituzionalak egitea, eskaintzen zaienaren berri emanez eta beren zaletasunei, egoerei eta interesei arreta eta erantzun handiagoa emanez.

1.1.4 Nahi gabeko haurdunaldiak ekidin eta afektibitate-sexu harremanak eta jokabideak beren behar eta interesetara egokitzen dituzten –betiere, aniztasun sentimentaletik eta sexualetik– emakumezko gazteen eta helduen kopurua handitzea.

Nahi gabeko haurdunaldiak saihestea:

- 1.1.4.1 Familia plangintza zentroen lana eta funtzionamendua indartzea; horretarako, modulu mugigarriak ipiniko dira asteburuetan gazte taldeak elkartzen diren edota aisialdirako dituzten inguru ohikoenetatik gertu.
- 1.1.4.2 Gazteei eta gazteekin lan egiten duten eragile sozialei sexu informazioa, orientazioa eta laguntza emateko zerbitzuak sortzea.

Harremanak beharizanetara egokitzea, aniztasuna kontuan hartuta:

- 1.1.4.3 Sexu aukeraren eta genero nortasunaren presentziaren azterketa, analisia eta segimendua egitea ikasgeletan.
- 1.1.4.4 Sexu aukerak sortutako desberdintasunak eragindako errealitatea eta ondorioak aztertzea (emakumezko lesbianak eta bisexualak), baita genero nortasunak eragindakoak ere (emakumezko transexualak). Errespetua eta tolerantzia sustatuko dituzten plan espezifikoak ezartzea.
- 1.1.4.5 Informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea, sexu aukera askea errespetatzen eta toleratzen irakasteko.
- 1.1.4.6 Emakume lesbianen, bisexualen eta transexualen kontrako gizartearen intolerantzia portaerak identifikatzea eta halakoak saihesteko jarduerak prestatzea.
- 1.1.4.7 Emakume lesbianen, bisexualen eta transexualen kontrako intolerantzia portaerak eta praktikak identifikatzea ikastetxeetan zein unibertsitateetan, eta halakoak saihesteko jarduerak prestatzea.
- 1.1.4.8 Hezkuntza afektiboa eta sexuala eskaintzeko tailerrak antolatzea, bereziki neska gazte lesbianentzat, bisexualentzat eta transexualentzat.



- 1.1.4.9 Ikastetxeetan eta irakaskuntza arautu gabeen sexu aukeraren aniztasuna errespetatzen irakasteko sentsibilizazio kanpainak, hitzaldiak eta jarduerak prestatzea, gazte horiengandik gertukoak izan daitezkeen pertsona erreferentzialen parte-hartzea sustatuta.

HELBURU ESTRATEGIKOA: 1.2 BALIOEN AL DAKETA BULTZATZEA, SEXUARE N ARABERAKO ROL SOZIALAK ETA ESTEREOTIPOAK DEUSEZTATUTA

1.2.1 Erantzukizun ekonomikoa gizonekin eta familiaren ar dura emakumeekin lotzen duten umeen, gazteen eta helduen kopurua murriztea.

- 1.2.1.1 Generoa eta Komunikazioa atalean aholkulari aditua sortzea, genero ikuspegia hizkuntzaren edukietan, erabileretan edota komunikabide publikoetan txertatzeko, komunikabide publikoetako profesionalak trebatzea genero ikuspegia txertatzeko informazio jardunean, eta komunikabideei eragiten dien berdintasun alorreko legedi espezifikoak ez agutaraztea, esandako araudia betetzen dela segimendua eginda.
- 1.2.1.2 Komunikazioetan genero ikuspegia txertatzeko argibideak ematen dituen estilo liburua prestatzea eta hedatzea komunikabide publikoetako zein pribatuetoako profesionalen artean, baita informazioarekin, publizitatearekin eta abarrekin lotutako unibertsitateko ikasleen zein irakasleen artean ere.
- 1.2.1.3 Jarduera politikoetan, sozialetan, zientifikoetan, ekonomikoetan eta kulturaletan emakumeen parte-hartzea berdintasun baldintzetan azaltzen duten eragin handiko publizitate kanpainak diseinatzea, emakumeen jabeakunza lortzeko eta generoarekin lotutako estereotipoak desagerrarazteko.
- 1.2.1.4 Katetoria profesioaletako emakumeen lan eskerga alderatzeko estimazioak egitea eta hedatzea, produkzio eta erreprodukzio lanetan emandako denbora kontuan hartuta.
- 1.2.1.5 Hausnarketa eremuak sortzea (jardunaldiak, ikerketarako laguntzak, kongresuak, argitalpenak eta trebakuntza ikastaroak) gizarte eredu aztertzeke; emakumezkoek edota jardun feministak historiari, kulturari eta arteari egindako ekarpenari errekonozimendu handiagoo egitea. Jarduera horien inguruan sortzen den pentsamendu eta jakintza feminista jorratzen eta hedatzen laguntzea, gizartean oro har eta unibertsitatean bereziki. Emakumezkoen pentsamenduaren eta jakintzaren, hedapenaren, informazioaren eta trebakuntzaren sorkuntza-prozesu honetan, ikuspegi androzentrikotik aldentzearren, emakumezkoen aniztasuna hartu behar da kontuan.
- 1.2.1.6 Jakintza sortzea genero ikuspegia kontuan hartuta, ekonomiaren, fiskalitatearen eta aurrekontu publikoaren alorretan.



1.2.2 Enpleguaren arloan rola sexuaren arabera esleitzen dituzten neska, mutil, gazte eta helduen kopurua murriztea (sexuaren arabera kategoria profesional, funtzio eta lan-esparruen asignazioa).

- 1.2.2.1 Lanbide sektoreak eta adarrak kontuan hartuta analisi bat egitea emakumezkoen zein gizonezkoen beren antolaketa-kulturetan esleitutako rolen eta estereotipoen inguruan, baita bereizketa bertikala eta horizontala murrizteko oztopoena ere. Jardunbide egokiak diseinatzea eta sindikatuen, enpresa erakundeen, elkargoen eta elkarte profesionalen artean banatzea, baita sektoreko enpresen artean ere.
- 1.2.2.2 Lan esparruan emakumezkoen ogibideak eta erantzukizunak ikusarazteko eta sustatzeko komunikazio zein sentsibilizazio kanpainak egitea, bereizketa bertikala eta horizontala murrizteko.
- 1.2.2.3 Emakumezkoen lidergoaren inguruko enplegu zerbitzu publikoetako profesional taldeak trebatzea. Enpresa kudeaketarekin eta giza baliabideekin lotutako unibertsitateko gradu eta graduondoko trebakuntzan emakumezkoen ekarpena kontuan hartzea, eta ekarpen hori erakundeen eraginkortasuna hobetzeko erabiltzea.
- 1.2.2.4 Profesionalen eta enpresen sareak sustatzea eta diruz laguntzea eta elkarteek ekintzak egitea, emakumezkoak ikusarazteko lan arloko ogibideetan eta erantzukizunetan.
- 1.2.2.5 Enpresetako gizarte erantzukizun zein berdintasun planak egiteko gomendioetan eta eskuliburuetan, erakundeetan bertan gizon-emakumeek egiten dituzten lanez hausnartzeko espazio bat sortzeak nolako garrantzia duen jasotzea eta dibertsifikazioa sustatzeko neurriak abiaraztea.
- 1.2.2.6 Enpresariak, sindikatuak, enpresa erakundeak, elkargoak eta profesionalen elkarteak sentsibilizatzea hainbat gairen inguruan: esate baterako, enpresetako lanpostuak eta erantzukizunak gizon-emakumeen artean berdintasun printzipioak kontuan hartuta banatzeko neurriak sustatzeak duen garrantzia (trebakuntza jardunaldiak, aholkularitza zerbitzuak, hausnarketa prozesuak eta jardunbide egokiak bilaketa). Eta ekintza mota horiek egiteko diru-laguntzak ematea.
- 1.2.2.7 Lan esparru eta jardun profesional guztietan emakumezkoen erreferentzien inguruko datu-baseak sortzea: fisika, kimika, gizarte zientziak, arkitektura, ingeniariak, astronomia eta abar.



1.2.3 G azteek eta h elduak etxeko lanak eta zaintza gizarte behar bezala hartzea, eta arlo horretan gizonak, erakundeak, merkatuak eta gizarte zibilak ere parte hartu behar dutela ikustea.

- 1.2.3.1 Etxeko lanen eta zaintza lanen jakintza eta errekonozimendua hobetzea eta hedatzea, kuantifikatuta, ezaugarriak aztertuta eta baloratuta: etxeko lanetara eta zainketetara erabat dedikatzen diren pertsonen bolumena eta egoera ezagutzeko sistema estatistikoak prestatuta, etxeko lanaren balio ekonomikoa estimatzeko sistemak aplikatuta eta emakumezkoek etxean eta zainketetan egiten duten doako lanak eragindako aurrezpen publikoaren estimazioak eginda.
- 1.2.3.2 Jakintza sortzeko azterketak eta prozesuak egitea, alor pribatuko kontziliario eta erantzukidetasun estrategiei dagokienez, gizonzkoen erantzukidetasuna sustatzeko esku-hartze estrategiak eremu pribatuetan sortzeko helburuarekin.
- 1.2.3.3 Komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak antolatzea, alor pribatuan erantzukidetasuna sustatzeko: kongresuak, hausnarketa jardunaldiak, komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak, gizon-emakumeen erantzukidetasuna sustatzeko irudiak eta mezuak txertatzea administrazioen komunikazio kanpainetan, ardura politikoak dituzten pertsonak eta administrazio publikoek ekintza eredugarriak diseinatzea eta betetzea, etab.
- 1.2.3.4 Ikerketak eta trebakuntza jarduerak egitea, zaintza lanak gizarte zibiko gisa garatzeko beharrezko elementu bezala nabarmentzeko, eta alor horretan ordainduta eta ordaindu gabe lan egiten duten pertsonak bistaratzea (beren aniztasunaren berri emateko), baita beren bizi baldintzak ere.
- 1.2.3.5 Zaintzari eta erantzukidetasunari lotutako curriculum diseinatzea, trebakuntza ziklo eta esparru guztietan.

1.2.4 Berdintasunaren aldeko pertsona proaktiboak kopurua handitzea, bereziki adingabeen k argu badaude e do adi ngabeentzat eredu badira, e ta berdintasunaren alde dauden gizon gazteen zein helduen kopurua handitzea.

- 1.2.4.1 EAEko administrazio publikoko berdintasun neurrien inguruko komunikazio planak prestatzea eta ezartzea.
- 1.2.4.2 Administrazio eta erakunde publikoetako komunikazio arduradunei berdintasunaren esparruan lantzen ari diren politiken berri ematea, herritarrei egindako diagnostikoen, planen, ekintzen, emaitzen eta inpaktuen berri emateko helburuarekin.
- 1.2.4.3 Guraso-elkarteei eta ikastetxeei babes eskaintzea, familietan, ikastetxeetan eta gizartearen ezarritako dauden estereotipoen inguruan



sentsibilizazioa eta informazioa emateko gurasoei, baita horien guztien eraginaren inguruan ere.

- 1.2.4.4 Berdintasuna lortzeko gizon gazteen eta helduen inplikazioa eta konpromisoa lortzeko ekintzak sustatzea.
- 1.2.4.5 Berdintasuna lortzeko lan egiten duten gizon kolektiboak sustatzea eta babestea.

1.2.5 Sail guztiak barne hartzen dituen lanerako printzipio moduan, urteko lan programetan hezkidetzaz sartzeko duten ikastetxe formalen eta ez formalen kopurua handitzea.

- 1.2.5.1 Koheziketa sustatzeko ekintza planak prestatzea (hezkuntza berrikuntzaren ildoen barruan txertatua edota orokorra), esate baterako, honako neurri hauekin: koheziketan lan egiten duten zentro sarea sortzea, bertan sortuko diren ekintzetan irakasleak inplikaturik; ikastetxeetan koheziketaren inguruko esperientzien berri ematea, bai gure erkidegoan, bai erkidegotik kanpo; edota koheziketa sustatzeko orientazioak. Berritzeguneetako langileei eta lehen zein bigarren hezkuntzako irakasleei trebakuntza ekintzak eskaintzea, beren egitekoetara egokituta; berritzeguneetan koheziketaren espezializatutako trebakuntza duten irakasleen presentzia bermatzea.
- 1.2.5.2 Koheziketa irizpide gisa ezartzea urteko programak berrikusteko protokoloetan eta ikastetxeen kalitatea ebaluatzeko prozesuen txostenetako kalitate adierazleetan; hezkuntzaren ikuskaritza teknikoko langileak koheziketaren inguruan trebatzea.
- 1.2.5.3 Praktika pedagogikoa hobetzeko laguntza deialdietan, genero berdintasuna garrantzi berezia duen alderdi gisa kontuan hartzea: trebakuntza eta berrikuntza proiektuak, esperientziako hezitzaileak eta abar.
- 1.2.5.4 Lehen eta bigarren hezkuntzan erabiltzen diren testuliburuak aztertzea, genero ikuspegia kontuan hartuta, material gomendagarrienak hautemateko eta, halakorik ikusiz gero, desagokiak direnak baztertzeko. Analisisien emaitzak ikastetxe publikoei zein pribatuei helaraztea. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna urratzen duten materialak merkatutik erretiratzea, halakorik hautemanez gero.



2. PROGRAMA: BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK IZATEA ETA KONTROLATZEA

HELBURU ESTRATEGIKOA: 2.1 EMAKUMEEN LANERATZEA ETA LANBIDEEN BARRIKALDINTZAK ETA MARRAZIGOTZEKO AUKERAK HOBETZEA, TALDEEN ETA EGOEREN ANIZTASUNA KONTUAN HARTUTA

2.1.1 Emakume taldeen okupazio tasa handitzea, kalitatezko lanpostuetan (mugagabeak eta lanaldi osoak) lan egiten dutenen kopurua arazotuz. Lehenetsutakoak dira:

- Zientzia, teknologia, ekonomia eta finantza arloetan emakume ikertzaileen kopurua handitzea.
- Teknologiako sektore arreratuenean eta inbertsioenetan lan egiten duten emakumeen kopurua handitzea.

2.1.1.1 Emakumezkoen kontratazioa sustatzeko plan sektorialak egitea eta ezartzea. Behar beste ordezkartuta ez dauden sektoreetan, hautaketa prozesuak eta emakumezkoen kontratazio diferentzian eragina duten antolaketa faktoreak aztertzea, eta horiek deuseztatzeko ekintzak diseinatzea eta abian ipintzea.

2.1.1.2 Enpresarietako sentsibilizazio, trebakuntza eta pizkundza ekintzak antolatzea, emakumezkoen kontratazioa galarazten duten estereotipoak deuseztatzeko, batez ere, emakumezkoen ordezkartza txikia duten ogibideetan. Enplegua sustatzeko eta emakumezkoak kontrataratzeko programak antolatzea, enpresei laguntza ekonomikoak eskainita.

2.1.1.3 Emakume langabeentzako informazio, motibazio eta orientazio ekintzak antolatzea, emakumezkoen ordezkartza txikia duten lanpostuetan lana topatzen laguntzeko, betiere, kontratazio ikuspegi onarekin eta kalitatezko enpleguarekin. Ekintza horiek emakumezkoen kolektiboen zein interesen aniztasunari egokitzea, diskriminazio anizkoitzak sortzen dituen faktoreak kontuan izanik.

2.1.1.4 Enplegurako trebakuntza eskaintza hainbat modulu berri txertatzea, hala nola, antolaketa eredu berriak, ekoizpen moduak eta abar. Ordezkartza txikia duten sektoreetan emakumezkoen lana topatzen laguntzea, diskriminazio anizkoitza gertatzen den egoeretan sortutako beharrak kontuan izanik, betiere.



- 2.1.1.5 Lanerako prestakuntzarako, enplegurako eta enplegua lortzeko trebakuntzarako programak diruz laguntzeko irizpideen artean genero ikuspegia kontuan hartzea, programa horiek diseinatzeko, betearazteko eta ebaluatzeko garaian. Era berean, diskriminazio anizkoitza ere kontuan hartzea irizpide horien artean.
- 2.1.1.6 Emakumezkoek enpresetan praktikak egin ahal izateko aukera lehen mailako irizpide gisa kontuan hartzea lan eta enplegu programetarako laguntzak esleitzeko garaian; enpresetan praktikak egiteko programen segimendua egiteko mekanismoak ezartzea, emakumezkoen partaidetza ziurtatzeko, batez ere, emakumezkoen ordezkaritza txikia duten lanpostuetan.
- 2.1.1.7 Komunikazio, sentsibilizazio eta informazio kanpainak egitea, bazterkeria anizkoitza bizi duten emakumeek lana topatzeko duten zailtasunaren inguruan, eta kolektibo horiei zuzendutako neurri espezifikoak koordinatzeko erakunde arteko lankidetzak sustatzea.
- 2.1.1.8 Enplegu publikoa lortzeko prozesuetan genero ikuspegia txertatzeko irizpideak ezartzea, prozesuen espezifikotasunak kontuan hartuta; lehentasun handiagoa duten prozesuak identifikatzea, berdintasun printzipioaren garapenari dagokionez. Erakundeek egindako jardunbide egokiak aztertzea eta sistematizatzea, beste erakunde batzuetara bideratzeko.
- 2.1.1.9 Enplegu publikoa lortzeko eta sustatzeko hautaketa prozesuak diseinatzen eta garatzen dituzten kolektibo profesionalak berdintasunaren alorrean dituzten trebakuntza beharrak hautematea, eta beren profil profesionalari egokitutako trebakuntza moduluak eskaintzea.

Lanpostu zientifikoak eta teknologikoak:

- 2.1.1.10 Erreferentzia-sektoreetako okupazioekin lotutako ikasketetako azken urteak egiten ari diren ikasleei, ikerleei eta bekadunei zuzendutako orientazio zerbitzua ezartzea (emakumezkoak, betiere), norbere kontura lan egiteko edota enpresak sortzeko sektore horiek eskaintzen dituzten aukeren berri emateko, betiere, erreferentziako sektoreetako enprekin komunikazio sistema egonkorra izanda, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren bitartez, langileen beharrianak eta eskatutako eskumenak hautemateko.
- 2.1.1.11 Eskumen transbertsaletan trebakuntza moduluak diruz laguntzea (taldeko lana, proiektuak kudeatzea, bezeroekin harremanak, zuzendaritza gaitasunak eta abar), jarrera berritzailea garatzea eta proiektu profesionala prestatzea, erreferentziako sektoreetako okupazioekin lotutako ikasketetako azken urteak egiten ari diren ikasleentzat, ikerlarientzat eta bekadunentzat (emakumezkoak, betiere).



2.1.1.12 Ordezkaritza txikia duten ogibideetan emakume kopurua handitzeko lan politzak kudeatzen dituzten unibertsitateei eta teknologia zentroei laguntza ematea, eta emakumezkoen partaidetza kuota ezartzea, enpresen praktika programetan eta enpresetan doktorego tesiak egiteko beketan.

2.1.2 Enplegua eta autoenplegua sustatzen duten emakumeen kopurua handitzea, baita beren proiektuen bidagarritasuna ere; hots, emakumeek sortutako enpresek lanetan ematen duten urteko kopurua, lankortasuna eta nazioartekotasuna areagotzea.

2.1.2.1 Emakume enpresarien egoerari eta beharrezkoak hartzeko ekintza plan orokorra eta koordinatua prestatzea, diagnostiko komunak eta administrazioak egiten ari diren lanen inpaktuaren balorazioak txertatuta, estrategia eraginkorra garatzeko helburuarekin.

2.1.2.2 Emakumezkoek enpresa ekimenak osatzeko finantzaketa formulak aztertzea, haiek sendotzeko helburuz: laguntza funtsak, kreditu faboragarriak eta abalik gabeak emateko hitzarmenak banketxeekin, eta abar.

2.1.2.3 Emakumeek intzaileei eta enpresariei zuzendutako programetan emakumeek osatutako enpresa sareen lana eta kooperazioak bultzatzeko irizpideak txertatzea. Era berean, beste modulu batzuk ere batuko dira, esate baterako, jarduera ekintzailearen faktore psikosozialek duten garrantziari buruzkoa, gaitasun transbertsalen eta berrikuntzako inguruko trebakuntza, esperientzia metodologiak (*mentoringa, coachinga*, eta abar).

2.1.2.4 Landaguneetako emakumezkoen zuzendutako trebakuntza eskaintzea, enpresa eta merkataritza tekniken edota kooperatibismoaren inguruan, baita ekoizpen teknika berriak hobetzeko eta garatzeko eta bitarteko honekin lotutako jarduera ekonomikoaren inguruan ere; turismoa eta artisautza, esate baterako.

2.1.2.5 Enpresa proiektuak egiteko, bederagarritasuna aztertzeke eta enpresa abiarazteko prozesuan prestakuntza eta aholkularitza emateari dagokienez, emakumeek bultzatutako enpresa ekimenei (autoenplegua, enpresak, kooperatibak eta lan sozietate anonimoak) lehentasuna ematea, baita enpresak osatzeko gastuak, aktiboetan egin beharreko inbertsioak eta funtzionamendu gastu orokorrak finantzatzeari dagokienez ere, batez ere, ordezkaritza txikia duten ogibideetan eta sektoreetan.

2.1.2.6 Ordezkaritza txikia duten sektoreetan eta ogibideetan, ETEak eta mikroETEak sustatzen dituzten emakumeentzako pizgarriak ipintzea, batez ere, lanpostuak sortu behar dituzten emakumezkoentzat edota enpresa nazioartekotzeko prozesuak abian jarri behar dituztenentzat.



- 2.1.2.7 Emakume langabeak ekonomia sozialeko enpresetan txertatzea, bazkide langile gisa.

2.1.3 Emakumeen eta gizonen batez besteko urteko soldata gordinen arteko aldea txikitzea, batez ere, aldea handiena den sektoreetan.

- 2.1.3.1 Soldaten arteko tartea nolatan sortzen diren analisi sakona egitea, sektoreak eta okupazioak kontuan hartuta, eta eragile sozial eta ekonomiko nagusien artean trebakuntza zein sentibilizazio ekintzak egitea, emaitzak kontuan izanik: sektoreko enpresa, sindikatu, enpresa erakunde, elkargo eta elkarte profesional, administrazio publiko eta abarren artean.
- 2.1.3.2 Langileen soldaten azterketa eginaraztea eta trebatzea, desberdintasunak gainditzeko lan egin dezaten: analisi ereduak eta jardunbide egokiak sortuz, soldaten arteko tartea kentzeko plan eraginkorrak egin dituztela egiaztatzen duten enpresei diru-laguntzak emanez, soldaten inguruan berdintasuna ikusarazten duten enpresei sariak emanez eta abar.
- 2.1.3.3 Sindikatuak trebatzea, hitzarmen kolektiboetan soldaten arteko tartea murrizteko neurriak txerta ditzaten, egoera erreferentziazko sektoreen arabera monitoriza dezaten eta alderdi horretan neurri gutxien hartzen dituzten enpresak sala ditzaten.
- 2.1.3.4 Administrazio publikoak, sindikatuek eta abarrek emakumezkoen soldata ezberdintasunen inguruko informazioa eta aholkularitza ematea, eta soldata berdintasuna lortzera bideratutako lan prozesuetan laguntzea.

2.1.4 Lan baldintza onak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzea, batik bat, feminizatutako sektoreetan.

- 2.1.4.1 Behar beste ordezkaturik ez dauden sektoreetan, hautaketa prozesuak eta gizon-emakumezkoen sustapen diferentzian eragina duten antolaketa faktoreak aztertzea, eta horiek deuseztatzea ekintzak diseinatzea eta abian ipintzea.
- 2.1.4.2 Trebakuntza eskaintza publikoan antolaketa eredu berrien, lidergo estiloen, ekoizpen moduen eta barren inguruko moduluak txertatzea, baita sustapen profesionalean dauden emakumeei zuzendutako laguntza moduluak ere, bazterkeria anizkoitza jasaten duten emakumeak kontuan izanik.
- 2.1.4.3 Konpetentzia transbertsalekin lotutako trebakuntza moduluak egiteko diru-laguntzak ematea (taldeko lana, proiektuak kudeatzea, bezeroekin harremana, zuzendaritza abileziak), jarrera berritzailea zein proiektu profesionala garatzea.



- 2.1.4.4 Enpleguaren eta trebakuntzaren alorrean lan egiten duten profesionalen sareak indartzea, gizon-emakumeen arteko berdintasun alorrean esperientziak eta ebaluazioak errazago koordinatzeko eta trukatzeko.
- 2.1.4.5 Sektore desberdinen arteko sare espezifikoak edota sare profesionaletako jardura espezifikoak sustatzea, emakumezkoen promoziorako.

2.1.5 E makume behartsuenen lan baldintzak eta estaldura soziala hobetzea, bereziki I ehenengo sektorean lan egiten dutenenak, etxeko lanak egiten dituztenenak eta ezkutuko ekonomian lan egiten dutenenak.

- 2.1.5.1 Gizarte Segurantzako nekazaritzako eta etxeko langileen erregimen berezietako emakumeen egoera, lan baldintzak eta beharrianak aztertzea, baita antzeko beste profesional batzuen ere. Sektore horietako ekonomia murgilduaren azterketa egitea. Kolektibo horien lan baldintzak hobetzeko neurriak sustatzea, eta, balegokio, enplegua izateko neurriak.
- 2.1.5.2 Enplegu zerbitzu publikoen rola sustatzea, etxeko enplegua lortzeko bitartekaritzari dagokionez.
- 2.1.5.3 Etxeko zerbitzuak emateko erakundeak sustatzeko eta teknikoki babesteko programa abian ipintzea, zerbitzu horiek emateko modu alternatiboak probatzeko helburuz, betiere langileen lan baldintza hobetzeari begira. Programa ebaluatzea eta jardunbide egokiak politika publikoetara eramatea.
- 2.1.5.4 Etxeko langileen enplegatzaileen eta enplegatuen artean komunikazio kanpainak egitea, kontratatzaileak dituen obligazioen inguruan eta langileak dituen eskubideen inguruan, baita kolektibo honen baldintza soziorabalen inguruan ere.
- 2.1.5.5 Nekazaritza ustategietan lan egiten duten emakumeen titulartasuna edota kotitulartasuna sustatzea, egoera horrek bere-bereak dituen eskubideak zein diren adierazita.

2.1.6 Neska-mutilen ikasketak aukeratzeko gaitasunaren exentzioa arteko desberdintasun kuantitatiboaren murriztea, eta lan ezentzioa emateko exentzio araberako alde handiagoa duten ikasketei edota erorkizunerako aukera gehiago ematen dituztenei.

- 2.1.6.1 Unibertsitateko ikasketen eta bestelako ogibideak ikasteko gizon-emakumeen arteko partaidetza inguruko azterketa sektorialak egitea, baita trebakuntza osagarriaren edota lan munduratzaren inguruan ere, gizon-emakumeen arteko oreka lortzeko zer neurri ezarri behar diren zehaztu ahal izateko.



- 2.1.6.2 Hezkuntza komunitateari bideratutako sentsibilizazio, informazio eta trebakuntza ekintzak egitea, neskek trebatzeak etorkizuneko aukeretarako duen garrantziari dagokionez.
- 2.1.6.3 Ikastetxeetan argibideak eta zuzentarauak ematea, orientazio proiektuak ikuspegi koheziatua kontuan hartuta bideratzeko, besteak beste, era honetako gomendioak bilduta: orientazio ematen duten kolektibo profesionali zuzendutako trebakuntza jarduerak egitea, ikuspegi koheziatua oinarrituta orientazio programetan aholkularitza emateko gaitutako profesionalen dotazioa handitzea eta, ikastetxearen antolaketan, orientazio ikuspegi koheziatuetik lantzeko denbora eta espazioak bermatzea.
- 2.1.6.4 Trebakuntza ematen duten pertsonak edota erakundeak hautatzeko irizpide gisa, programetan genero-ikuspegia kontuan gehiago hartzea.
- 2.1.6.5 Curriculumaren eta lanbide hezkuntzarekin lotutako azpiegituren diseinua aztertzea, neska-mutilen berdintasun printzipioa hobeto egokitzeko, betiere honako hauek erantsita: gehienik mutilek aukeratzen dituzten ikasketa esparruetako irakasleak trebatzeko plana, neskek txertatzeko prozesuak hobetzeko; laneko zentroetan ikasleek praktikak egin ditzaten sinatutako hitzarmenak aztertzea, neska-mutilen berdintasuneko irizpideetara egokitzeko beharrezkoa izanez gero; eta abar. Enpresetako antolaketan eredu eta azpiegiturak egokitzeko neurriak ezartzea, neskek ere praktikak egin ahal izan ditzaten.

2.1.7 Enpresa pribatuetan berdintasunerako planen kopurua gehitzea.

- 2.1.7.1 Enpresa pribatuetan berdintasun diagnostikoak eta planak egiteko diru-laguntzak.
- 2.1.7.2 ETEei eta mikroETEei zuzendutako gida espezifikoak egitea, jarduera sektoreka bereizita, sektoreko berdintasun praktika egokiek eta metodologia komun eta errazarekin jardunbide egoki horiek beren enpresetan ezar ditzaten.
- 2.1.7.3 Berdintasun planak eta neurriak ezartzen dituzten enpresak aztertzea.



HELBURU ESTRATEGIKOA: 2.2 POBREZIA EDOTA BAZTERKETA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEN EGOERA HOBETZEA.

2.2.1 Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen ehunekoa murriztea.

- 2.2.1.1 Txirotasun edota gizarte bazterkeria egoeran zein arriskuan dauden emakumeen beharretara egokitutako trebakuntza bideak zein lan orientazioa diseinatzea, emakume kolektiboek beharrezko espezifiketara egokitutako konpetentzia transbertsaletan trebakuntza emango dutenak, batez ere, bazterkeria anizkoitza bizi dutenentzat: emakume etorkinei hizkuntza irakastea eta tokian tokiko ohiturak azaltzea, lan merkatutik aldentuta egon diren emakumeei lan munduko portaera eta jarrera ohikoenak azaltzea, eta abar.
- 2.2.1.2 Pobrezia zein bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden emakumeentzako lanerako trebakuntza ordaintzea, eta trebakuntzarekin bateragarriak diren neurriekin edota doako zerbitzuekin osatzea, beren kargura dauden mendeko pertsonak zaintzeko.
- 2.2.1.3 Pobrezia edota gizarte bazterkeria arriskuan edota egoeran dauden emakumeei laguntzea, baldin eta lan merkatutik baztertuta egon badira trebakuntza ezagatik, guztia ere kalitatezko enplegua lortzen lagunduko dien titulazioa eskuratu ahal izan dezaten.
- 2.2.1.4 Babes ofizialeko etxebizitza politiketan pobrezia edota bazterkeria egoeran zein arriskuan dauden emakumeentzako kupo espezifikoak diseinatzea, emakume kolektiboek dituzten beharrak eta arazo espezifikoak aztertu ostean.
- 2.2.1.5 Ikusten eta ordaintzen ez den emakumezko lanaren balorazio eta errekonozimendu soziala zein ekonomikoa lortzeko neurriak hartzea, etxeko lanen eta zainketa lanen esparruan.
- 2.2.1.6 Pobrezia edota bazterkeria arriskuan dauden emakumeen baldintzak, egoerak eta beharrak aztertzea, eta dauzkaten laguntzak zein bitartekoak nahikoa ote diren aztertzea, guztia ere murrizteko edo baliabide osagarriak sortzeko irizpideak balioesteko.
- 2.2.1.7 Erabat emakumezkoen mende dauden adin txikikoentzako jarduerak eta zerbitzuetako (jangelak, haurreskolak, udalekuak eta abar) onarpen baremoetan faktoreak edota irizpideak txertatzea, eta laguntza sozial edota ekonomikoa osagarriak ematea, guraso bakarreko familietako titularren bizi baldintzak hobetzeko, baldin eta pobrezia edota gizarte bazterkeria egoeran zein arriskuan badaude:



- seme-alabak beren kargura dituzten eta prekarietate ekonomiko eta sozial egoeran dauden pertsonentzako garraio publikorako laguntzak;
- guraso bakarra izatea eta diskriminazio anizkoitza irizpide gisa kontuan hartzea seme-alaben ikasketetarako bekak emateko garaietan;
- seme-alabak erabat beren kargu dituzten emakumeek lehentasuna izatea lanerako trebakuntza ikastaroetan, beren beharrian espezifikoei erantzunez.

2.2.1.8 Pobrezia egoeran edota gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen egoera hobetzeko programak diseinatzea eta ezartzea, beren jabeakuntza sustatzeko. Administrazioa eta hirugarren sektorean lan egiten duten erakundeetako langileak trebatzea, emakume horien egoera hobetzeko programak diseinatzea, antolatzea eta beren jabeakuntza sustatzeko.

2.2.2 E emakumeen j arduera tasa handitzea eta enplegua uzten duten emakumeen tasa murriztea.

- 2.2.2.1** Auzolan programen garapena aztertu, estaldura maila eta eskaria handitzeko, baita programaren eraginkortasuna ere (eraginkortasuna emakumeak lan munduan txertatzeko gaitasun gisa ulertuta).
- 2.2.2.2** Bizitzaren zatirik handiena etxeko lanak edota zainketa lanak egiten eman duten emakumeentzako orientazioa eta lanerako trebakuntza prestatzea, lan merkatuan txertatzea erabakitzen badute.
- 2.2.2.3** Lan bitartekaritzako enpresetan emakumezkoen lana sustatzeko neurri eraginkorrak bilatzea eta azterketa egitea.
- 2.2.2.4** Lan orientazioan inplikaturik dauden kolektibo profesionalei zuzendutako trebakuntza espezifikoa egitea, batez ere, etxeko lanetan eta zainketa lanetan aritu diren emakumeak lan munduan txertatzen laguntzeko. Lan horiek egin izanak ematen dituen gaitasunak eta kapazitateak errekonozitzea, eta ezaugarri horien antzekoak dituzten beste lan batzuetarako gaitasunaren erreferentzia gisa erabiltzea.
- 2.2.2.5** Komunikazio kanpainak egitea lan mundua uzteak dituen ondorioen eta arriskuen gainean.



2.2.3 Erakundeek eskainitako erantzunak eta baliabideak baztertze arriskuan dauden emakumeen beharretara hobeto egokitzea (zerbitzu sozialak, ekonomikoak, osasuna, hezikuntza, enplegua, justizia, seguritasuna eta etxebizitza).

Emakume alargunak:

2.2.3.1 Emakume alargunen bizi baldintzak aztertzea, egoera hori hobetzeko neurriak ezartzeko.

2.2.3.2 Alargunak direlako prekarietate ekonomikoan dauden emakumeen baldintza ekonomiko egokiak ziurtatzeko bitarteko ekonomikoak ipintzea.

Ama nerabeak:

2.2.3.3 Informazio, orientazio eta aholkularitza zerbitzuak ematea ama nerabeei, hezikuntza sisteman jarraituko dutela ziurtatzeko edota, beharrezkoa izanez gero, lan munduan txertatzea posible egiteko.

Emakume etorkinak:

2.2.3.4 Pobrezia edo gizarte bazterkeria egoeran zein arriskuan dauden emakumeen baldintzak, egoerak eta beharrak aztertzea, ahultasun maila handitzen duten faktoreei arreta berezia ipinita eta administrazioen zein kolektibo horiek lan egiten duten erakundeen jarduna orientatzen duten neurriak zein zuzentarauak ezarrita.

2.2.3.5 Emakume etorkinek bitarteko publikoak jasotzeko dituzten oztopoak malgutzea, beren beharrak bermatzeko honako gai hauen inguruan:

- Osasun laguntza.
- Hezikuntza.
- Lanerako prestakuntza.
- Etxebizitza.
- Seguritasuna.

2.2.3.6 Gizarte bazterkeriaren kontrako borrokan lan egiten duten administrazioako teknikariei genero ikuspegidun kultura arteko bitartekaritzaren inguruko trebakuntza ematea, baita orientazioan espezializatutako zerbitzuei eta etorkin kolektiboekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeei ere.

Espetxeratutako emakumeak eta espetxetik irtendakoak:

2.2.3.7 Askatasuna kendutako emakumeen osasun beharrei erantzuteko zerbitzuak sortzea.

2.2.3.8 Askatasun gabezia egoeran dauden emakumeentzako edota espetxean egondakoentzako programak sortzea, beren jabetasuna handitzeko eta gizartearen parte-hartze handiagoa izateko.



2.2.3.9 Askatasun gabezia dauten emakumeek trebakuntza bitartekoak izan ditzaten erraztea eta sustatzea, irakaskuntzako sistema arautuaren, lanerako prestakuntzaren eta tailer produktiboen bitartez.

Ezgaitasunak dituzten emakumeak:

2.2.3.10 Ezgaitasunak dituzten emakumeen errealitate espezifikoak eta bizi baldintzak ikertzea, baita pobrezia edo/eta gizarte bazterkeria egoerari gehien eragiten dieten baldintza espezifikoak ere.

2.2.3.11 Eguneko zentroetan, lanerako prestakuntzan eta aldi baterako zein behin betiko egoitzetan dagoen eskaria zenbateraino estaltzen den aztertzea, eta eskarira egokitzeko hartu beharreko neurriak hartzea.

Emakume nagusiak:

2.2.3.12 Emakume nagusien baldintzak, egoerak eta beharrianak aztertzea, baita pobrezia zein gizarte bazterkeria egoeran eragiten duten faktoreak ere.

2.2.3.13 Osasungintzako langileak eta laguntzaileak emakume nagusien osasun fisikoaren zein psikikoaren inguruan trebatzea, beren bizi baldintzen berri ematea eta emakume horiek dituzten sindrome nagusiak bistaratzea.

2.2.3.14 Emakume nagusiekin egiten diren esku-hartze programetan autozainketarako, haien jabetasun pertsonala sustatzeko eta autoantolaketa posible egiteko trebakuntza ekintzak txertatzea, haien interesak zein beharrik bideratzeko modu gisa.



HELBURU ESTRATEGIKOA: 2.3 BALIABIDE S OZIALAK ESKURATZEKO AUKER A HANDITZEA, BATEZ ERE, DISKRIMINAZIO ANITZEKO EGOEREI DAGOKIENEZ

2.3.1 Teknologia b erriak er abiltzen d ituzten em akumeen k opurua h anditzea; bereziki, n agusien artean e ta h orretarako z ailtasunak di tuzten taldeen artean.

- 2.3.1.1 KzGuneetan, teknologia berriak gutxi erabiltzen dituzten emakume profiei zuzendutako sentsibilizazio eta kaptazio kanpainak egitea, erabilera potentzialak sustatzeko.
- 2.3.1.2 Teknologia berriak gutxi erabiltzen dituzten emakumeei trebakuntza eta erabiltzeko aukera erraztea.
- 2.3.1.3 Teknologia berriak baliatu ahal izateko espazio instituzionalen sorrera sustatzea, zailtasun ekonomiko handiagoak dituzten edota bazterkeria arriskuan dauden emakumeek teknologia berriak doan erabili ahal izan ditzaten.
- 2.3.1.4 Emakume elkarteei laguntzak ematea, batez ere, teknologia berriak erabiltzeko ia aukerarik ez duten emakume kolektiboekin lan egiten dutenei, teknologia berriak gerturatzeko trebakuntza ekintzak abiaraz ditzaten.

2.3.2 Kolektiboen e ta b eharren a nitzasunari egokituako g arraio eta ekipamendu pu blikoaren e staldurarekin pozik dau den e makumeen k opurua handitzea, batez ere, landa eremuetakoena.

- 2.3.2.1 Landaguneetako garraio publikoaren estalduraren azterketa egitea, biztanleen kontziliazio eta koerantzukizun beharrei dagokienez.
- 2.3.2.2 Landaguneetan dauden gizarte zerbitzuen eta ekipamendu publikoen azterketa egitea –osasungintzarekin, hezkuntzarekin, enpleguarekin, gizarte zerbitzuekin eta kulturarekin, aisialdiarekin edota kirolarekin lotutakoak– eta ordutegien, erabilgarritasunaren, zerbitzuen eta abarren egokitasunaren diagnostikoa egitea, sexuen arabera banatuta.
- 2.3.2.3 Landaguneetan dauden gizarte zerbitzu nagusien kontziliazio erantzukidearen beharretara egokitzeko eta estaldura maila handitzeko plan estrategikoa egitea, kontrastatuta eta herritarrek zein gizarte eragileek parte hartuta.



2.3.3 O sasun-baliabideak e makumeen beharretara h obeto e gokitzea e ta baliabide horietan genero-ikuspegia lehentasunez barneratzea:

Osakidetzaren plan, programa eta protokoloen geratu azterketak gauzatzea eta osasunarekin loturiko esku-hartzeetan genero-ikuspegia barneratzeko neurriak proposatzea:

- Sexu eta ugalketa osasunaren hobekuntza sustatzea.
- Utero-lepoko minbiziaren prebentzioa eta birusaren minbizia diagnostikatu zaien emakumeei ematen zaien arreta hobetzea.
- Genero-baldintzatzaileekin loturik, emakumeek pairatzen dituzten buruko osasun-arazoak gainean arreta hobea sustatzea.
- Diskriminazioa anitzeko egoeran dauden emakumeen osasuna hobetzearen alde egitea.

Genero ikuspegia txertatzea osasungintzaren alorrean:

- 2.3.3.1 Lehen mailako arretako prebentzio jardueren planean dauden genero arazorik handienak identifikatzea.
- 2.3.3.2 Osasun informazio eta erregistro sistemak berrikustea, datuak sexuaren arabera bereizteko beharretara egokitzeko eta emaitzak baliaitzeko.
- 2.3.3.3 Proposamen metodologikoak diseinatzea, genero ikuspegia osasungintzako protokolo, programa eta esku-hartze guztietan txertatzeko.
- 2.3.3.4 Osasungintzan genero ikuspegia txertatzeko planak, programak eta protokoloak prestatzeko zein ebaluatzeko ardura duten kolektibo profesionalak gaitzeko trebakuntza programa prestatzea.
- 2.3.3.5 Osasungintzako profesionalen kolektiboen trebakuntza jarraituko programetan generoarekin lotutako edukiak txertatzea, gizon-emakumeen osasuneko determinatzaile gisa.
- 2.3.3.6 Jardunbide klinikoei buruzko gidetan genero bazterkeriak saihesteko gomendioak emateko dokumentu bat egitea.

Sexu eta ugalketa osasuna:

- 2.3.3.7 Nahi ez diren haurdunaldiak saihesteko antisorgailuen erabilera sustatzea eta, batez ere, preserbatiboa erabiltzea, haurdunaldiak eta sexu bidezko gaitzak saihesteko.
- 2.3.3.8 Erditzeak eta jaiotzak fisiologia errespetatuta eta pertsonalizatuta artatzeko ereduak garatzea.



Utero-lepoko minbiziaren prebentzioa eta bu larreko minbizia di agnostikatu zaien emakumeei ematen zaien arreta hobetzea:

- 2.3.3.9 Utero-lepoko minbizia garaiz hautemateko programak eta neurriak garatzea.
- 2.3.3.10 Utero-lepoko minbiziaren eta giza papilomaren birusa sexu bidez transmititzearen arteko harreman etiologikoaren arteko jakintza aberastea.
- 2.3.3.11 Preserbatiboaren erabilera sustatzea.
- 2.3.3.12 Bularreko minbizia artatzeko jardunbide klinikoei buruzko gida prestatzea.
- 2.3.3.1 Bularreko minbizia izan duten emakumeei segimendua egiteko protokoloa prestatzea.
- 2.3.3.2 Bularreko minbizi heredo-familiarrarekin bateragarria den familia historia duten emakumeei aholku genetikoa, segimendua eta tratamendua eskaintzea.
- 2.3.3.3 Autolaguntza taldeekin kolaborazioa handitzea.

Buruko osasuna:

- 2.3.3.4 Diziplina arteko lantaldea osatzea, ikuspegi biopsikosozialarekin eta genero ikuspegiarekin, depresio edota antsietate sintomak (edo ondoez sindromeak) dituzten emakumeak artatzeko irizpideak ezartze aldera.
- 2.3.3.5 Lehen mailako arreta eskaintzen duten kolektibo profesionalak emakumeen ondoeza zehazten duten faktore biopsikosozialak identifikatzeko sensibilizatzea eta trebatzea.
- 2.3.3.6 Osasungintzako lehen mailako arretako kolektibo profesionalak antsietate, depresio edota ondoez sintomen aurrean laguntza psikologiko indibiduala emateko tekniketari trebatzea.

Bazterkeria anizkoitz egoeran edota arriskuan dauden emakumeak:

- 2.3.3.7 Emakume etorkinen kolektibo nagusiek dituzten osasun behar garrantzitsuenen inguruan azterketa bat egitea, etorkin elkarte nagusiekin elkarlanean.
- 2.3.3.8 Informazio dokumentu eta baimen informatu garrantzitsuenak etorkin multzo nagusien hizkuntzetara itzultzea.
- 2.3.3.9 Emakume etorkinen kolektiboaren laguntzarekin, emakume etorkinentzat interesgarria edota beharrezkoa izan daitekeen osasun hezkuntzako materiala prestatzea.



- 2.3.3.10 Ezgaitasunaren esparruko erakunde nagusiekin batera azterketa bat egitea, ezgaitasunak dituzten emakumeen osasun behar nagusien inguruan.
- 2.3.3.11 Ezgaitasunen esparruko erakunde nagusiekin batera eta inplikaturako emakumeek parte hartuta azterketa bat egitea, ezgaitasunak dituzten emakumeek sexualitatearen eta kontrazepzioaren inguruan izan ditzaketen interesen eta beharizanen inguruan.
- 2.3.3.12 Osasungintzako lehen mailako arretako profesionalen kolektiboarentzat eta Obstetria eta Ginekologia arlokoentzat trebakuntza materialak prestatzea, ezgaitasunak dituzten emakumeen arretaren inguruan.

2.3.4 Emakumeek kirol baliabideak erabiltzeko dituzten aukerak areagotzea, eta kontuan hartzea taldeen aniztasuna eta beharrak, bereziki:

- Ariketa fisikoa egiten duten eta kirola praktikatzen duten emakumeen ehunekoa handitzea, bereziki emakume gazteenen kasuan.
- Emakumeek kirolerako eta aisialdirako espazioetan gusturago egotea, eta gune horiek haien beharretara egokitzea.
- Emakumei zein gizonei kirola egiteko zailtasunak sortzen dizkieten oztopoak kentzea, honakoak aintzat hartuta: sarrerak eta sarbideak, makinak egokitzea, bainugelak, laguntza teknikoak egokitzea...

Sektore eta kirol maila guztietan emakumeen presentzia handitzea.

- 2.3.4.1 Euskal administrazioetako eta kirol klub eta federazioetako kirol arlo eta erakundeetan bereizketa bertikala zein horizontalari buruzko azterketa bat eta ekintza plan bat egitea sustatzea eta hortik ateratzen den plana arlo honetan inplikaturako pertsonen helaraztea.
- 2.3.4.2 Kirol arloko laguntza publikoei, eskersariei eta ordainsariei buruzko azterketa bat egitea genero ikuspuntuari erreparatuz eta berrikuspen bat egitea honakoak areagotzeko: batez ere emakumeek praktikatzen dituzten kirol modalitateentzako laguntza publikoak; emakumezko eta gizonezko kirolariei ematen zaizkien sari eta ordainsarien arteko oreka eta emakumeek eta gizonek egiten dituzten kirol jardueren dibertsifikazioa.
- 2.3.4.3 Berdintasunean espezializatutako teknikariak edo berdintasun aholkularitzarako zerbitzuak kontratatuzko laguntza ekonomikoak sortzea, aholkuak eman ditzaten bai berdintasun planak egiteko, bai gizonak nagusi diren kirol arloko lanbideetan eta kirol sistemaren hierarkia osoan emakumeen presentzia areagotzeko neurriak



hartzeko (emakumezko teknikariak, entrenatzaileak, arbitroak, kudeaketa arduradunak eta zuzendariak).

- 2.3.4.4 Emakumezkoek eta gizonzkoek kirol modalitateen inguruan dituzten interes eta aurreikuspen ezberdinak aztertzea eta administrazioek eskaintzen dituzten artean ez daudenak identifikatzea eta dibertsifikazioa areagotzeko jarduerak egitea.
- 2.3.4.5 Kiroldegi publikoetako zerbitzuak, ekipamenduak eta guneak emakumek eta gizonek dituzten zaletasun eta interes ezberdinetara egokitzea.
- 2.3.4.6 Hedabide publikoetan emakumezkoek egiten dituzten kirol jarduerak agerian jartzeko ekintza espezifikokoak egitea.
- 2.3.4.7 Kirol arloan, eskoletan eta eskolatik kanpo, generoen arteko etena eragiten duten faktoreak zeintzuk diren ikertzea eta eten hori desagerrarazteko estrategiak diseinatzea.
- 2.3.4.8 Gurasoak sentsibilizatzea jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko berdintasunaren inguruan, seme-alabak hezterakoan neska-mutilen kirol jarduerak dibertsifikatzea susta dezaten.

2.3.5 Ekoizpen kultural eta artistikoko lekuetan emakumeen presentzia handitzea, kulturaren arlo eta maila guztietan, eta emakumeen sarbidea eta emakume taldeen gogobetzea ahalbidetzeko erabilerak hain beharretara, gustuetara eta interesetara egokitzeari dagokionez.

- 2.3.5.1 Emakumezkoentzako erreferentziazko kulturguneak sortzea. Honako zerbitzuak eskaini beharko dituzte gune horiek:
 - Ikerketa eta aholkularitza zerbitzua eta dokumentazio feminista.
 - Trebakuntza gunea: «Investigar en clave feminista» (Ikerketa feminismoaren ikuspegitik).
 - Jarduera kulturaletan partaide diren emakumezkoentzako gunea.
 - Emakumezko artistentzako hausnarketarako eta elkartzeko gunea.
- 2.3.5.2 Kulturaren arlo ezberdinetan emakumeek eta gizonek sortutako arte ekoizpenen jarraipena eta azterketa egitea.
- 2.3.5.3 Euskal administrazio publikoek sustatuta arte eta literatura arloan ematen diren sarien epaimahaietan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatzea, parekotasuna lehenetsiz; baita kultura eta/edo arte munduko funtsak emateko organoetan ere.
- 2.3.5.4 Kulturaren diziplina ugarietan genero azterlanak egiteko ikerketarako beka sortzea eta artista gazteei beka ematea beren lanak gauza ditzaten.



- 2.3.5.5 Emakumeen kultura arloko sorkuntza eta pentsamendu feminista sustatuko duten argitalpen, hitzaldi, erakusketa, bideo eta abarrentzat laguntzak bideratzea.
- 2.3.5.6 Emakumeek kulturari eta arteari eginiko ekarpen historikoa ikertzea eta sistematizatzea eta eztabaida publikoa sustatzea sorkuntza kultural eta artistikoaren eta emakumeen inguruan, emakume taldeen aniztasuna aintzat hartuta eta bazterketa mota bat baino gehiago jasaten duten emakumeei arreta berezia eskainiz.
- 2.3.5.7 Emakume artisten arteko topaketak eta jardunaldiak antolatzea beren lana balioesteko, esperientziak trukatzeko eta sareak sortzeko moduak sistematizatzeko. Aintzat hartu beharko da emakume taldeen aniztasuna.
- 2.3.5.8 Gazteentzako jarduera kultural eta artistiko dibertsifikatuak sustatzea; generoari dagozkion estereotipoak gainditzen eta zaintza lanekiko jarrera ona izaten lagunduko duten jarduerak, hain zuzen.



3. PROGRAMA: PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

HELBURU ESTRATEGIKOA: 3.1 EMAKUMEEK ELKARTEEN MUGIME NDUA ETA HORRETAN PARTE HARTZEA BULTZATZEA.

3.1.1 Berdintasunaren alde lan egiten duten emakumeen elkarten kopurua eta elkarteetan parte hartzen duten kideen kopurua handitzea.

- 3.1.1.1 Mugimendu feministak eta emakumeak elkartzeko mugimenduak gaur egun duten egoera ikertzea, diagnostikoa egitea dituzten zailtasunei eta oztopoei buruz eta emakume gehiago bazkidezeko eta eraginkortasunez jarduteko estrategiak zehaztea.
- 3.1.1.2 Aholkularitza zerbitzu bat eta/edo trebakuntza prozesu bat sortzea elkartei kudeaketa lanak hobeto egiten laguntzeko eta partaidetza eredu malguagoak eta partaidetzako joera berriei egokituagoak izan ditzaten (interneteko sareak, *online* partaidetza, jarduera zehatzak, etab.).
- 3.1.1.3 Emakumeen elkarten sareak sortzen laguntzeko laguntzak eta baliabideak sustatzea, lanerako estrategiak partekatze aldera.
- 3.1.1.4 Mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek egiten dituzten jardueri buruzko komunikazio kanpaina bateratuak sustatzea eta egiten dituzten jarduerak errekonozimendua izan dezaten lan egitea.
- 3.1.1.5 Arazo edo albiste zehatzen inguruan elkarrekin lan egingo duten emakumeen elkarten plataformak sortzen laguntzea.
- 3.1.1.6 Bazterketa mota bat baino gehiago jasateko arriskuan dauden emakumeen elkarteak sortzen laguntzea eta egiten dituzten jarduerak diruz laguntzea.

3.1.2 Elkarte mugimenduko hainbat taldetan, bereziki, sindikatuetan, alderdi politikoetan eta enpresen erakundeetan parte hartzen duten emakumeen (bereziki diskriminazio anitza jasaten dutenak) kopurua handitzea.

- 3.1.2.1 Berdintasun printzipioaren alde eta bazterkeriaren aurka lan egiten duten elkartei, laguntza, diru laguntzak eta heziketa eskaintzea, beraien erakundeetan emakumeen presentzia eta partaidetza aktiboa susta dezaten.



- 3.1.2.2 Jardunbide egokiak biltzen dituzten dokumentuak prestatzea alderdi politikoen, sindikatuen eta elkarte profesional zein enpresen elkarteen antolaketan, funtzionamenduan eta jardueretan genero ikuspegia txertatzeko, hedapen eta heziketa ekintzak gauzatzea emaitzetan oinarrituta eta jardunbide egoki horiek ezartzeko sustapen lanak egin eta diru laguntzak ematea.
- 3.1.2.3 Alderdi politikoei, sindikatuari, enpresa erakundeei eta abarrei laguntza eskaintzea berdintasunaren aldeko ekintzak gauzatzera bideratutako partaidetza prozesu zehatzak eta/edo malguak susta ditzaten.

3.1.3 Alor politikoan eta sozialean parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula berrien bidez, esaterako, sareak sortuta edo sareetan kolaboratuta.

- 3.1.3.1 Emakumezkoek sare sozialean duten presentziari eta erabilerari buruzko azterlanak egitea.
- 3.1.3.2 Emakumeen elkarteentzako trebakuntza ekintzak egitea sare sozialek emakume bazkideen kopurua areagotzeko eta elkartearen kudeaketarako eskaintzen duten aukerari buruz.
- 3.1.3.3 Partaidetza sozio-politikorako prozesuak sortzeko eta hedatzeko sustapen lanak egitea, horretarako, sareak eta emakumeek sareetan duten presentzia erabilia.
- 3.1.3.4 KzGuneetan sare sozialei eta, oro har, gizartean parte hartzeko eskaintzen duten aukerari buruzko trebakuntza prozesuak sortzea, batez ere, berdintasunean parte hartzeko eskaintzen duten aukerari erreparatuz.

3.1.4 Egitza eremuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua handitzea.

- 3.1.4.1 Elkartearen mugimenduan genero ikuspegia txertatzeari eta berdintasun politikak abian jartzeari buruzko azterlan-diagnostikoa egitea eta berdintasuna sustatzeko neurriak eta jardunbide egokiak bilatzea.
- 3.1.4.2 Diru laguntzak sortzea izaera orokorreko elkarteek beren antolaketa eta funtzionamendua berdintasun printzipiora egokitu dezaten, berdintasuna sustatzeko ekintza zehatzak egin ditzaten eta dagokien jardura eremuan genero ikuspegia txertatu dezaten.
- 3.1.4.3 Elkarteentzako berdintasunaren inguruko ekintza hezitzaileak egitea, dagokien jardura eremuko emakumeen egoera zehatzaz jabe



daitezen eta berdintasun ezari aurre egiteko neurriak diseinatzen ikas dezaten.

- 3.1.4.4 Berdintasuna izaera orokorreko elkarteen helburuen artean egotea irizpide izatea diru laguntzak emateko orduan.

HELBURU ESTRATEGIKOA: 3.2 ERABAKI ETA ERAGIN ALO RRETARAKO IRISMENA HANDITZEA.

3.2.1 **Sektore publikoko zuzendaritza postuetan emakumeen presentzia handitzea, bereziki, desoreka handiena dagoen alorretan.**

Horien artean, hurrengo hauek dute lehentasuna:

- **Ekonomikoak, finantzarioak eta enpresakoak.**
- **Unibertsitatea eta ikerketa erakundeak.**
- **Erakunde akademikoak, artistikoak eta kulturalak.**
- **Komunikabideak.**

- 3.2.1.1 Lanorduetan trebakuntza eskaintzea eta/edo lana eta familia uztartzeko zerbitzuak edo neurriak ezartzea.
- 3.2.1.2 Lana eta familia uztartzeko neurriak baliatu dituzten pertsona guztiei etengabeko trebakuntza bermatzea, batez ere, lanean mailaz igotzeko eta/edo lan baldintzak hobetzeko aukera ematen dieten trebakuntzari dagokionez.
- 3.2.1.3 Erantzukizuneko lanetan emakumeak sartzeko ekintza neurri positiboak ezartzea, batez ere, emakumeek presentzia txikia duten kategorietan, hala, pixkanaka postu horietan parekotasuna lortzeko.
- 3.2.1.4 Etengabeko trebakuntzarako programetan emakumeen eta gizonen partaidetzaren arteko aldeak eta programa horiek emakumeengan zein gizonengan duten eragina aztertzea eta, hala dagokionean, aldeak zergatik sortzen diren aztertzea.



3.2.2 Sektore pribatuko enpresetako erabaki alorretan eta zuzendaritza postuetan dauden emakumeen kopurua handitzea:

Ondoko jarduera sektore hauek jotzen dira lehentasunezkoak:

- Hirugarren sektoreko enpresak (batez ere finantzarioak eta bitartekaritza ekonomikokoak).
- Unibertsitate eta ikerketa zentro pribatuak.
- Jarduera artistikoetako eta kulturaletako enpresak.
- Hedabideak

3.2.2.1 Lehenetsitako lau eremuetan emakumeek zuzendaritza postuetara iristeko dituzten zailtasunei buruzko azterketa egitea eta plan estrategikoa egitea sektore horietako zuzendaritzako postuetarako emakume gehiago kontratatzea sustatzeko.

3.2.2.2 Biltzarrak, jardunaldiak eta gogoeta prozesuak abian jartzea emakumeen lidergoa eta kristalezko sabaia deritzona aztertzeo, hala, arazoak eta arazoaren tratamenduak duen bilakaerari jarraipen bateratua egin ahal izateko.

3.2.2.3 Komunikazio kanpainak egitea zuzendaritza postuetan berdintasunaren alde egin duten enpresak eta horien kudeaketan emakumeek egiten duten ekarpena nabarmentzeko.

3.2.2.4 Enpresa eta sindikatu arloko erakundeak sentsibilizatzeko jarduerak egitea, trebakuntza programen diseinuan eta horiek gauzatzekoan, emakumeentzako ekintza positiboak egin ditzaten, batez ere, erantzukizuneko lanpostu horietarako beharrezkoak diren gaitasun teknikoak eta zeharkako gaitasunei dagokienez (proiektuen kudeaketa, lantaldeen kudeaketa, zuzentzeko gaitasunak, berrikuntzarako trebakuntza, etab.).

3.2.2.5 Enpresa eta sindikatu arloko erakundeetan sustapen lanak egitea erantzukizuneko lanpostuen ordutegia lanegunaren ordutegietara egokitzeko eta/edo bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko zerbitzuak edo neurriak eskaintzea eta emakumeek lanean mailaz igotzeko aukera gehiago izan ditzaten ekintza positiboak egitea.

3.2.2.6 Sustapen lanak egitea sindikatu eta enpresetako erakundeek negoziatio kolektiboan emakumei erantzukizuneko lanpostuak lortzeko aukera izatea bermatzeko irizpideak eta/edo ekintza positiboak aintzat har ditzaten.



3.2.3 Elkarte mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetako eta erakunde politikoetako erabaki postuetan dauden emakumeen kopurua handitzea.

- 3.2.3.1 Elkarte mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetan eta erakunde politikoetan erabakiak hartzeko postuetan dauden emakumeen presentziari buruzko azterlan bat egitea.
- 3.2.3.2 Irabazi asmorik gabeko elkarteei eta erakundeei diru laguntza emateko orduan, erabakiak hartzeko lanpostuetan parekotasuna izatea irizpide izatea.
- 3.2.3.3 Parekotasunaren irizpidean oinarritutako partaidetza prozesuak jartzea abian, hau da, elkarteei eskatzea partaidetza prozesuetan emakumeek eta gizonek modu orekatuan parte har dezatela.
- 3.2.3.4 Herritarrek parte hartzeko kontseiluetan eta organo egonkorretan parekotasuna sustatzeko irizpideak ezartzea.



II. ARDATZA: ANTOLAKUNTZA SOZIAL ERANTZUKIDEA

II. ARDATZA: ANTOLAKUNTZA SOZIAL ERANTZUKIDEA

4. PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA ETA DENBORAREN ERABILERA BERRIAK

HELBURU ESTRATEGIKOA: 4.1 ERANTZUKIDETASUNA ETA ZAINZAREN ETIKA SUSTATZEA

- 4.1.1 Amatasun eta aitatasun baimenen parekatzea sustatzea, iraupen bera izan dezaten eta besterenezinak izan daitezen
- 4.1.2 Kontziliazio neurriei heltzen dieten gizonen ehunekoa handitzea
- 4.1.3 Generoen arteko desoreka murriztea, gizonek eta emakumeek etxeko eta zaintza lanetan emandako denborari dagokionez
- 4.1.4 Neskek eta mutilek etxeko eta zaintza lanaren erantzukidetasunari eskaintzen dioten denbora areagotzea, bereziki mutilei erreparatuz

HELBURU ESTRATEGIKOA: 4.2 EMAKUMEEK AISIALDIAZ GOZATZERA ETA MENDEKATASUN EKONOMIKOA MURRIZTERA BIDERATUTAKO DENBORA HANDITZEA

- 4.2.1. Generoen arteko desoreka murriztea emakumeek eta gizonen aisialdiari eta bizitza sozialari eskaintzen dioten denboran
- 4.2.2 Generoen arteko desoreka murriztea emakumeek eta gizonen lan ordaindurako eta prestakuntzarako ematen duten denboran, osoko lan zama handitu gabe.

5. PROGRAMA: KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA

HELBURU ESTRATEGIKOA: 5.1 ENPRESEN KULTURA KONTZILIAZIO ERANTZUKIDERANTZ ALDATZEA

- 5.1.1 Sektore pribatuko enpresen kontziliazio neurriak areagotzea, ondokoa eginda: legeak eskatzen dituen gutxienekoak gainditzin eta kontziliazio erantzukidearen aldeko neurriak edo jarduerak gauzatzen dituzten enpresa handien -250 pertsona enplegatuta baino gehiago- kopurua areagotuta. Kontziliazio erantzukidea lortzeko neurriak ezartzen dituzten enpresa txiki eta ertainen kopurua areagotzea.
- 5.1.2 Administrazio publikoak eta sektore publikoko bestelako enpresek hartutako kontziliazio erantzukiderako neurrien kopurua areagotzea.
- 5.1.3 Emakumeen eta gizonen poztasun maila areagotzea kontziliazio erantzukiderako dauden neurriei dagokienez, eta gizonen eta emakumeen kontziliazio neurriak hartzeko duten zailtasun maila murriztea.



HELBURU ESTRATEGIKOA: 5.2 ZERBITZUEN ORDUTEGIEN ESTALDURA ETA MALGUTASUNA AREAGOTZEA

- 5.2.1 Mendetasun egoeran dauden pertsoneri arreta emateko zerbitzu soziokomunitarioen eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen ordutegien malgutasuna areagotzea, langileen kontziliazio erantzukidea bermatuta.
- 5.2.2 Mendetasun egoeran dauden pertsoneri arreta emateko zerbitzu soziokomunitarioen estaldura maila areagotzea, bertako langileen kontziliazio erantzukidea bermatuz

HELBURU ESTRATEGIKOA: 5.3 HIRIGINTZAKO PLANGINTZA ETA HERRITARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUAK ALDATZEA KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA ERRAZTEKO

- 5.3.1 Eguneroko bizimoduko jarduerak egiteko biztanleek joan-etorrietan ematen duten denbora murriztea.
- 5.3.2 Kontziliazio erantzukidea eta pertsonen autonomia erraztuko duten hirigintzako plangintzarako eta garraioaren diseinurako irizpideak identifikatzea eta aplikatzea.



4. PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA ETA DENBORAREN ERABILERA BERRIAK

HELBURU ESTRATEGIKOA: 4.1 ERANTZUKID ETASUNA ETA ZAINZAREN ETIKA SUSTATZEA

4.1.1 Amatasun eta aitatasun baimenak parekatzea sustatzea, iraupen berekin izan dezaten eta besterenezinak izan daitezen.

- 4.1.1.1 Gogoetarako ekintzetan eta estrategietan parte hartzea eta laguntza eskaintzea; hala nola, berdintasunaren aldeko erakundeen arteko plataformetan eta foroetan, elkarleen artean eta abar, horrela, amatasun eta aitatasun baimenak parekatzea sustatzeko. Jaurlaritzari helburu hori betetzeko beharrezkoak diren legezko prozedurak egin ditzala eskatzea.
- 4.1.1.2 Amatasun eta aitatasun baimenak parekatzeak ekonomiari eta gizarteari ekarriko liokeen eraginari buruzko azterlana egitea eta berdintasuna lortzeko bidean urratsak emateak dakartzan eraginak kalkulatzeko; baita gizonek neurri horiek baliatzeak ekar ditzakeen onurak kalkulatzeko ere.
- 4.1.1.3 Sindikatuen eta enpresen alorreko elkarleen artean gogoetarako eta ekintzak egiteko joera sustatzea, amatasun eta aitatasun baimenak parekatzea susta dezaten.
- 4.1.1.4 Enpresen erantzukizun sozialaren baitan amatasun eta aitatasun baimenak parekatzea aintzat hartzen duten enpresei zuzenean diru laguntzak ematea pizgarri gisa.
- 4.1.1.5 Beste herrialde batzuetako jardunbide egokiak biltzea, aplikagarriak diren edo ez aztertzeko orduan erreferentzia gisa erabiltzeko.



4.1.2 Kontziliazio neurriei heltzen dieten gizonen ehunekoa handitzea.

- 4.1.2.1 Neurriak sortzea enpresek erantzukizun sozialaren barruan azter dezaten lana eta familia uztartzeko neurriek aurreikusitako egoerak baliatzen dituzten gizon kopurua zenbatekoa den eta neurri horiek zenbat denborarako hartzen dituzten.
- 4.1.2.2 Lana eta familia uztartzeko proposamen berriak ikertzea eta emakumeen zein gizonen bizitzetan izan ditzaketen eraginak aztertzea. Lana eta familia uztartzeko neurri gisa telelana erabiltzeak dituen alde onak eta txarrak baloratzea.
- 4.1.2.3 Gizonak lana eta familia uztartzeko neurriak errazago baliatu ahal izateko kultura, heziketa eta trebakuntza sustatzea eta, berdintasunari garrantzi handiagoa ematen dioten jarreretan eta jokabideetan sakontzea.
- 4.1.2.4 Gizonak gaitzea adingabekoak, gaixoak eta mendetasunak dituztenak zaintzeko beharrezkoak diren jakintza, trebetasuna eta gaitasuna izan ditzaten.
- 4.1.2.5 Laneko zentroetan, gizonei informazioa eta laguntza eskaintzea lana eta familia uztartzeko baimenak eta neurriak balia ditzaten, hala, seme-alabak, gaixoak edo mendetasunak dituztenak zaintzeko aukera izan dezaten.
- 4.1.2.6 Enpresetako langile guztiek lana eta familia uztartzeko neurriak baliatu ahal izateko bermeak jartzea, edozein dela duten lana, lanaldia edo kontratu mota.

4.1.3 G eneroen a rteko d esoreka m uriztea, g izonek e ta em akumeek e txeko eta zaintza lanetan emandako denborari dagokionez.

- 4.1.3.1 Txosten bat egitea neurri fiskalek, laneko neurriek, zerbitzu soziokomunitarioen egoerak eta funtzionamenduak eta mendetasun legean jasotako neurriek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko eta emakumeen eta gizonen artean erantzukidetasuna lortzeko helburuetan duten eraginari buruz eta neurriak proposatzea.
- 4.1.3.2 Lana eta familia uztartzeari eta erantzukidetasunari buruz gogoeta egiteko guneak sortzea; administrazioan eta, batez ere, gaiarekin lotutako foroetan, lana eta familiaren uztarketa eta erantzukidetasuna garatzeko beharrezkoak diren neurriak biltzen dituen txostenaren ondorioak zabaltzea. Etxeko lanak eta zaintza lanak bidezko moduan banatzea zailtzen duten oztopoak kentzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea.



- 4.1.3.3 Komunikazio kanpainak eta herritarrek parte hartzeko kanpainak egitea lana eta familia uztartzeko neurriak baliatzen dituzten gizonak agerian jartzeko.
- 4.1.3.4 Jarduerak sortzea aitak eta zaintza lanak egiten dituzten gizonak adingabeak zaintzen eta hezten eta mendetasunak dituztenak zaintzen ere inplika daitezten: ludoteketan aitekin eta zaintza lanak egiten dituzten beste gizon batzuekin esku hartzeko programak, komunitate eta gizonezkoen aldageletan (eta mistoetan) haurren aldalekuak instalatzea, familia osoarentzako komunak eta aldagelak egitea sustatzea, familia osoarentzako jarduerak antolatzea kirol, kultura, jolas eta festa arlokoak, partekatutako gune soziokulturalak areagotzea, jarduera kulturalen eta kirol jardueren ordutegiak egokitzea kontziliazio erantzukidea lortze aldera eta abar.
- 4.1.3.5 Hainbat dimentsio aintzat hartuko dituen ikerketa bat egitea. Honako aldagaiak hartuko dira kontuan: zaintza lanaren kostuak; Euskal Autonomia Erkidegoko eremu pribatuan zaintza lanek duten irismenaren azterketa; zaintzaile informalak direnek euskal gizarteari egiten dioten ekarpen ikusezinaren kuantifikazioa; emakumeen eta gizonen partaidetzaren arteko aldea zaintza lanetan; eta autonomiarik ez duten pertsonak zaintzen dituztenek jasaten dituzten zama ekonomiko, sozial eta psikologikoei eta horiek sor ditzaketen ondorioei eta zuzeneko zein zeharkako kostuei buruzko azterlana.
- 4.1.3.6 Hedabideen bidez zabaltzea etxeko lanek eta zaintza lanek sare informalean duten balio ekonomikoa eta soziala eta, batez ere, emakumeek sare horri egindako ekarpena.

4.1.4 N eskak eta m utilek e txeko eta z aintza l anaren er antzukidetasunari eskaintzen dioten denbora areagotzea, bereziki mutileri erreparatuz.

- 4.1.4.1 Haurrek eta gazteek familiako lanetan eta arduetan erakusten duten erantzukidetasunari buruz eginiko azterlanen emaitzak zabaltzea, haurrek eta gazteek, oro har, eta hainbat talde jakinek abiapuntuan dituzten ezaugarriak eta egoerak aintzat hartuta: denboraren erabilera, arrazoiak eta ondorioak; ikasleek erantzukidetasun handiagoz jokatzeko estrategiak; zaintza lanak curriculumean txertatzeari dagokionez beste testuinguru batzuetan izandako esperientziak.
- 4.1.4.2 Lehen hezkuntzan mintegiak diseinatzea eta egitea, ikasleek adin bakoitzari dagozkion gaitasunen arabera, etxeko lanak eta zaintza lanak egin ditzaten.
- 4.1.4.3 Bigarren hezkuntzan hautazko irakasgai bat edo trebakuntza jarduerak eskaintzea ikasleek etxeko lanak eta zaintza lanak egiteko jakintza, trebetasun eta gaitasun handiagoa izate aldera, bereziki mutileri begira, familian erantzukizunak har ditzaten sustatzeko.



- 4.1.4.4 Hezkuntza ez formalean mintegiak egitea adingabeentzat eta gazteentzat, batez ere mutikoentzat, etxeko lanak eta zaintza lanak egiteko jakintzak, gaitasunak eta trebetasunak hobetzeko.
- 4.1.4.5 Haur eta lehen hezkuntzako zentroyen antolaketarako eta funtzionamendurako erregelamenduen kalitateari buruzko txostenetan baterako hezkuntzaren ikuspegia txertatzea baloratzeko mekanismoak ezartzea: eskola komunitatean erantzukidetasuna sustatzeko mintegiak eta jarduerak egiteari eskainitako ordu kopurua identifikatzea.
- 4.1.4.6 Irakasleak eta familiak sentzibilizatzea erantzukidetasunaren garrantziaren inguruan batetik, eta etxetik nahiz eskolatik etxeko lanak eta zaintza lanak partekatzeo jakintzak eta jarrerak sustatzeko lan egitearen garrantziaren inguruan, bestetik.
- 4.1.4.7 Familiekin sentzibilizazio jarduerak egitea mutikoeak eta neskatoeak zaintza lanetan eta etxeko lanetan gizonetako erreferentzia izatearen garrantziaz gogoeta egiteko. Hainbat taldek bizi dituzten egoera jakinei erreparatzea: familia etorkinak, landaguneetako familiak, ezgaitasuna duen norbait kide duten familiak eta abar.
- 4.1.4.8 Eskoletan familien, irakasleen eta ikasleen arteko lantaldeak sortzeko sustapen lanak egitea, denon artean etxeko lanetarako eta zaintza lanetarako erantzukidetasuna sustatzeko estrategiak diseina ditzaten.

HELBURU ESTRATEGIKOA: "4.2" EMAKUMEEK AISIALDIAZ GOZATZERA ETA MENDEASUN EKONOMIKOA MURRIZTERA BIDERATUTAKO DENBORA HANDITZEA

4.2.1. Generoen arteko desoreka murriztea emakumeek eta gizonetako aisialdiari eta bizitza sozialari eskaintzen dioten denboran.

- 4.2.1.1 Zerbitzu soziokomunitarioak ugartzea eta dibertsifikatzea, emakumeek nahiz gizonetako adingabeak eta mendetasunak dituztenak zaintzeari denbora gutxiago eskaini ahal izateko.
- 4.2.1.2 Alde batetik, emakumeak sentzibilizatzea aisialdiari eta bizitza sozialari denbora gehiago eskaini diezaieten eta, bestetik, gizonak ere sentzibilizatzea duten abantailaz jabe daitezten eta, beraz, etxeko lanetan eta zaintza lanetan erantzukidetasunez joka dezaten, gozamenetako eta bizitza sozialerako dituzten orduak emakumeenekin partekatzeo.



- 4.2.1.3 Hezkuntza formalean eta ez formalean nahiz gurasoen elkarteetan aitei, amei eta ikasleei zuzendutako jarduerak eta mintegiak egitea bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren arteko orekaren garrantziaren inguruan.
- 4.2.1.4 Jarduera kultural publikoak egiten diren zentroetan adingabeak eta mendetasunak dituztenak zaintzeko zerbitzu bat izan dezatela sustatzea.
- 4.2.1.5 Jarduera kulturalen eta kirol arlokoen ordutegiak ezartzerakoan, lanak eta bizitza pribatuak dakartzan erantzukizunak aintzat hartzea.
- 4.2.1.6 Hedabideen bidez, etxeko lanak eta zaintza lanak egiten dituzten gizonen irudi eredu-garria agerian jartzea.
- 4.2.1.7 EAEko jaietan kanpainak egitea festak erantzukidetasunean oinarrituak izan daitezela aldarrikatzeko eta emakumeek eta gizonek festen gozamina partekatzeke baldintza gisa etxeko eta zaintza lanetarako erantzukidetasuna aldarrikatzeko.

4.2.2 G eneroen arteko aldeak esortzea emakumeek eta gizonek lan ordaindurako eta prestakuntzarako ematen duten denboran, osoko lan zama handitu gabe.

- 4.2.2.1 Ordaindutako lanean eta trebakuntzan gizonen eta emakumeen artean dagoen berdintasun ezari buruz eginiko azterlanen emaitzak hedatzea. Oztupoak kentzera bideratutako neurriak eta mekanismoak sortzea.
- 4.2.2.2 Emakumeak sentibilizatzea karrera profesionalean trebakuntzak duen garrantziari buruz. Enpreetan emakumeentzako trebakuntza sustatzea.
- 4.2.2.3 Enplegurako zerbitzu publikoek eskaintzen dituzten trebakuntza prozesuetan haurren eskoletako ordutegiak aintzat hartzea eta, hala egin ezean, mendetasunak dituzten pertsonak zaintzeko *ad hoc* zerbitzu bat egotea, zaintza lanez arduratuko diren pertsonak kontratatzeke laguntza ekonomikoak ezartzea eta abar.
- 4.2.2.4 Etxekoandreentzako sentibilizazio ikastaroak, lanerako trebakuntza eta lan munduratzeko prozesuak abian jartzeko, lan egiteke eta autonomia ekonomikoa lortzeko aukera izan dezaten.
- 4.2.2.5 Eremu pribatuan eskuratutako gaitasunak lan munduan nola aplikatu eta baloratu jakiteke azterlana egitea, batez ere, giza baliabideen arloari bideratuta. Laneko orientazioaz eta langileen hautaketaz arduratzen direnak trebatzea eremu pribatuan (etxeko lanak eta zaintza lanak) eskuratutako gaitasunak eta trebetasunak zertarako eta zertan izan daitezkeen interesgarri eta erabilgarri jakin dezaten, hala, hautaketa prozesuetan gaitasun horiek aintzat har ditzaten.



5. PROGRAMA: KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA

HELBURU ESTRATEGIKOA: 5.1 ENPRE	SEN KULTURA K	ONTZILIAZIO
ERANTZUKIDERANTZ ALDATZEA		

5.1.1 Sektore pribatuko enpresen kontziliazio neurriak erabiltzea, on doko eginda: lugeak eskatzen dituen gutxienezkoak gaitzen eta kontziliazio erantzukidearen aldeko neurriak edo jarduerak gauzatzen dituzten enpresa handien –250 pertsona enplegatu baino gehiago– kopurua erabiltzea. Kontziliazio erantzukidea lortzeko neurriak ezartzen dituzten enpresa txiki eta ertainen kopurua erabiltzea.

- 5.1.1.1 Enpresa pribatuetako langileek bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez uztartzeko izan ditzaketen behar ez berdinak identifikatzea, kontziliazio neurriak dituzten beharretara egokitzeko aldera.
- 5.1.1.2 Lanaldia bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko beharretara egokitzeko formulak aztertzea; hala nola, telelana edo ordutegi malguak, eta lan zamari, erakundearen ezaugarriei eta langileen egoerari ondoen egokitzen zaizkien aplikatzea, betiere, ohikoa ez den lanaldia hautatzen dutenei honakoak bermatzen bazaizkie:
 - Karrera profesionala garatzeko eta mailaz igotzeko aukerak ez murriztea.
 - Erantzukizun edo erabakitze gaitasun urria eskatzen duten lanpostuetara ez aldatzea.
 - Enpresaren lanerako zentro nagusian ez egoteagatik enpresa barruko trebakuntza jasotzeko aukerarik ez galtzea.
- 5.1.1.3 Enpresek hitzarmen kolektiboetan emakumeen eta gizonen kontziliazio erantzukiderako neurriak txertatu ahal izateko baldintzak sortzea: laneko ordutegiak optimizatzea, lanaldi zatituan bazkaltzeko denbora murriztea; lanean hasteko eta amaitzeko ordutegiak malgutzea...
- 5.1.1.4 Telelana arautuko duten neurriak hartzeko beharra aztertzea bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren uztarketaren mesedetan. Emakumeek eta gizonen telelana modu orekatuan erabiltzea sustatuko dute neurri horiek.
- 5.1.1.5 Langileei zuzendutako informazio kanpainak egitea enpresak bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez uztartzeko eskaintzen dituen neurriei buruz.
- 5.1.1.6 Langileentzako sentibilizazio ekintzak egitea kontziliazioaren mesedetan ezarritako neurrien erabilera bultzatzeko.



- 5.1.1.7 Giza baliabideen eta lan baldintzen kudeaketaz arduratzen direnei trebakuntza eskaintzea erantzukidetasunean oinarritutako kontziliazioaren beharrari buruz, kontziliazioa bermatzeko aplikagarri diren neurriei buruz eta enpresek langileak gustura edukita eta ekoizpena hobetuta lortzen dituzten onurei buruz.
- 5.1.1.8 Bizitza pertsonalaren, familiarren eta lanaren artean erantzukidetasunezko uztarketa lortzeko eta langileak gustura edukitzeari eta ekoizpena hobetzeari buruz eginiko azterlanak, materialak, jardunbide egokiak eta esperientziak jasotzea eta enpresen, sindikatuen eta enpresa erakundearen artean hedatzea.
- 5.1.1.9 Genero ikuspegia aintzat hartuta, jardunbide egokiak sustatzea lanerako denboraren malgutasunari eta berrantolaketari dagokionez eta, hori guztia, enpresen erantzukizun sozialaren foroan testuinguruan.
- 5.1.1.10 Ziurtagiriak ematen dituzten erakundearen bidez arau berri bat ezartzearen bideragarritasuna eta izango lukeen eraginkortasuna aztertzea. Arau horrek «kontziliazioaren aldeko enpresak» edo «familiarrekiko arduratsuak diren enpresak» ziurtatuko lituzke, erantzukidetasuna lortze aldera.
- 5.1.1.11 Langileak hautatzeko enpresen eta enpresen kudeaketa eta zuzendaritza ereduak ezartzen dituzten enpresen artean hedatzea EFQM ereduaren «langileak gustura edukitzea» irizpidearen baitan txertatu daitezkeen kontziliazio neurriak.
- 5.1.1.12 Informazioa, trebakuntza eta aholkuak eskaintzea kontziliazio erantzukidea bermatzen duten neurriak eta/edo zerbitzuak ezarriko dituzten enpresa pribatuei eta eskuragarri dauden laguntzei buruzko informazioa ere ematea.
- 5.1.1.13 Pizgarri fiskalen sistema bat ezartzea zerbitzu soziokomunitarioei eusteko eta/edo zerbitzu horiek egokitzeko ekarpen ekonomikoa egiten duten enpresentzat. Laneko denbora malgutzeko neurriak eta kontziliazioaren aldeko neurriak eta/edo zerbitzuak abian jartzeko laguntzak eta/edo pizgarri fiskalak jaso dituzten enpresei jarraipena eta kontrola egitea, eraginkortasuna ziurtatzeko.
- 5.1.1.14 Administrazioekin kontratuak egiten dituzten enpresek kontziliazio erantzukidea lortzeko planak edo programak izatea baloratzea, batez ere enpresa handiak badira.



5.1.2 A dministrazio p ublikoak eta s ektore p ublikoko b estelako en presek hartutako kontziliazio erantzukiderako neurrien kopurua areagotzea.

- 5.1.2.1 Euskal administrazioetan eta sektore publikoko enpresetan kontziliazio erantzukiderako planak prestatzea eta gauzatzea. Emaitzen ebaluazioa eta alderaketa egitea eta neurriak baliatzeko dauden oztopoak eta arazoak zehaztea.
- 5.1.2.2 Euskal administrazioek eta sektore publikoak bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko dituzten neurriak berrikustea eta hobetzea eta neurri horien erabilera emakumeek eta gizonen modu parekatuan egitea sustatzea.
- 5.1.2.3 Beste administrazioetan eta Europan dituzten jardunbide egokiak identifikatzea eta EAEko administrazioetan eta sektore publikoan aplikatzeko aukera aztertzea.
- 5.1.2.4 Berrikuntza sozialerako foroetan «kontziliazio erantzukidea» kontzeptua txertatzea, hala, neurri berriak aurkitu ahal izateko eta neurri horiek eraginkortasunez erabiltzeko beharrezkoak diren mekanismoak asmatzeko.

5.1.3 Emakumeen eta gizonen poztasun maila areagotzea kontziliazio erantzukiderako dauden neurri dagokienez, eta gizonen eta emakumeen kontziliazio neurriak hartzeko duten zailtasun maila murriztea.

- 5.1.3.1 Kontziliazio erantzukiderako neurrien erabilerari eta erabiltzaileen asebetetzeari buruzko ikerketa egitea: neurriak baliatu dituzten profilak eta neurriak baliatzeko arazoak aztertzea eta aurreikuspenak eta lortutako emaitzak alderatzea, egingo lituzketen hobekuntzak aztertzea...
- 5.1.3.2 Azterlan bat egitea kontziliazio erantzukiderako neurriak baliatzeko orduan sortzen diren oztopoak agerian jartzeko, neurri horien eraginkortasuna hobetze aldera.
- 5.1.3.3 Kontziliazio erantzukiderako neurriak hobetzeko ekintzak bilatzea eta praktikan jartzea. Ekintza horiek praktikan jarritakoan, jarraipena egitea neurriek balio duten edo ez jakiteko, emakumeek eta gizonen zenbateraino erabiltzen dituzten eta gustura dauden edo ez aztertuta.



HELBURU ESTRATEGIKOA: 5.2 ZERBITZUE N ORDUTEGIEN EST ALDURA ETA MALGUTASUNA AREAGOTZEA

5.2.1 Mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzu soziokomunitarioen eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen ordutegien malgutasuna areagotzea, langileen kontziliazio erantzukidea bermatuta.

- 5.2.1.1 Azterlan bat egitea ordutegiak eta egutegiak zabaltzeko aukera duten ikastetxeak aztertzeko. Haur eskoletako ordutegiak eta egutegiak hedatzea eta malgutzea gurasoen laneko ordutegietara egokitzeko. Hori guztia hezkuntzako helburuak aintzat hartuta egin behar da.
- 5.2.1.2 Erakundeen arteko testuinguru baten barruan, ikastetxeetako ordutegiak eta egutegiak zabaltzeko bideak bilatzea, guztia ere, eskola orduetatik kanpo, oporretan eta jai egunetan arreta hobea eskaintzeko. Urteko hilabete guztietan arreta ordutegi jarraian eskaintzea izatea helburua. Hori guztia hezkuntzako helburuak aintzat hartuta egin behar da.
- 5.2.1.3 Baliabideak jartzea ikasleei eskola orduz kanpo arreta eskaintzeko programak abian jartzeko.
- 5.2.1.4 Mendetasunak dituzten pertsonen arreta eskaintzeko zerbitzu soziokomunitarioak (haur eskolak, ikastetxeak, eguneko zentroak, egoitzak...) pertsona horien eta haien familien benetako beharretara eta eskarira egokitzea: ordutegiak, egutegiak, oporrak.
- 5.2.1.5 Osasun zentroetako ordutegiak malgutzea bideragarria den edo ez jakiteko azterlan bat egitea eta plan bat gauzatzea ordutegi horiek zabaltzeko, gizartearen beharrak kontuan hartuta. Osasun arloko profesionalak eta horien ordezkari sindikalak sentzibilizatzea ordutegiak dibertsifikatzearen behar sozialari buruz.
- 5.2.1.6 Herritarrei informazioa emateko, dokumentuak eta ordainketak/diru sarrerak kudeatzeko euskal administrazioetako zerbitzu publikoetako ordutegia eta egutegia zabaltzearen bideragarritasunari buruzko azterketa egitea eta neurriak hartzea.



5.2.2 Mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzu soziokomunitarioen estaldura maila areagotzea, bertako langileen kontziliazio erantzukidea bermatuz.

- 5.2.2.1 Hezkuntza alorreko zerbitzuekin lotutako eskaintza eta eskaria aztertzea: jantokiak, garraioa, haur eskolak... Eskaintza eta eskaria egokitzeari buruzko arloak aztertzea, batez ere, plaza kopuruari, jarduerari, baldintza ez berdinetara egokitzeari, amen eta aiten egoera eta beharrei eta eskaintza eta eskaria alderatzeari dagokionez, betiere, banaketa geografikoaren eta landa inguruneko edo hirikoa izateari buruzko irizpideak aintzat hartuta. Eraitzen arabera, zerbitzu horien eskaintza eta eskaera egokitzea.
- 5.2.2.2 Mendetasunak dituzten pertsonak zaintzeko eta pertsona horiei arreta eskaintzeko zerbitzu soziokomunitarioen eskaintza eta eskaria aztertzea eta eskaintza eta eskaria orekatzeko neurriak ezartzea. Eskaintza eta eskaria aztertzea, betiere, banaketa geografikoaren eta landa inguruneko edo hiriko izaera izatearen irizpideak aintzat hartuta.
- 5.2.2.3 Diru laguntza publikoak emateko dekretuetan ondorengo helburuak eta filosofia oinarri hartuta lan egiten duten programak edo gizarte eragileak sartzeko: atsedeen programak eta/edo zaintza lanak egiten dituztenen zama ekonomikoak, sozialak, psikologikoak arintzeko bestelako jarduerak garatzea eta lehentasuna ematea emakumeek eginiko zaintza lanen ordezkotako bide berrien proposamenei lotutako jarduerari eta zaintza lanetan gizonen parte hartzearekin lotutako jarduerari.
- 5.2.2.4 Gaixoak edo mendetasunak dituztenak zaintzen dituzten emakumeen zama sozial, ekonomiko eta psikologikoak arintzerako bideratutako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, duten eragina, norainokoa eta eraginkortasuna neurtuz.
- 5.2.2.5 Beste herrialde batzuetako jardunbide egokiak identifikatzea eta zaintza lanak egiten dituzten emakumeen zama sozialak, ekonomikoak eta psikologikoak arintzeko bideak diseinatzea erabiltzea.
- 5.2.2.6 Gaixoentzako edo mendetasunak dituztenentzako eremu soziosanitarioa hobetzeko bideak aztertzea jardunbide egokiak bildu eta Euskal Autonomia Erkidegoan duten aplikagarritasuna aztertuta eta emakume talde bakoitzak behar ezberdinak dituela aintzat hartuta.
- 5.2.2.7 Osasun alorreko arreta eredu berrien harira, aldi baterako mendetasunak dituzten pertsonen duten arreta beharri zehar egiteko erantzuten zaion aztertzea eta arreta hori hobetzeko proposamenak egitea hala behar izanez gero.



HELBURU ESTRATEGIKOA: 5.3 HIRIGINTZAKO PLANGINTZA ETA HERRITARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUAK ALDATZEA KONTZILIAZIO ERANTZUKID EA ERRAZTEKO

5.3.1 E guneroko bizimoduko j arduerak egiteko bi ztanleek j oan-etorrietan ematen duten denbora murriztea.

- 5.3.1.1 Herritarren parte hartze-prozesuetan eta hirigintza mugikortasun eta plangintzako diagnostikoetan identifikatutako hobekuntza proposamenen bideragarritasuna aztertzea. Identifikatutako hobekuntzak indarrean jartzeko beharrezko bitartekoak eskaintzea. Egindako hobekuntzak ezagutaraztea eta jardunbide on bezala hedatzea.
- 5.3.1.2 Hirigintza mugikortasun eta plangintzako egitasmoetako parte-hartze prozesuetan emakume elkarteak eta talde feministak sartzeara.
- 5.3.1.3 Garraio publikoaren hobekuntza sustatzea: garraio lineak areagotzea, ordutegiak zabalitzea, landa eremuetako zerbitzu kopurua ugartzea, erabiltzaile kopuru altueneko orduetan zerbitzu gehiago eskaintzea...

5.3.2 Kontziliazio erantzukidea eta pertsonen autonomia erraztuko duten hirigintzako plangintzarako eta garraioaren diseinurako irizpideak identifikatzea eta aplikatzea.

- 5.3.2.1 Bizitza pertsonala, familia bizitza eta lan arloa era arduratsuan uztartzeko dauden oztopoen diagnosis egitea, betiere hirigintza eta garraio plangintza kontuan izanik; familia zaintzeko eta mantentzeko egiten diren lanak zailtzen dituzten oztopoak aztertuko dira bereziki.
- 5.3.2.2 Hirigintza diseinatzeko eta garraioa planifikatzeko arduradunei trebakuntza ematea, betiere bizitza pertsonala, familia bizitza eta lan arloa uztartzeko bitarteko egokiak sartzeko hirigintzako eta garraio publikoko plangintzetan.
- 5.3.2.3 Hirigintzaren eta garraio publikoaren plangintzaren barruan bizitza pertsonala, familia bizitza eta lan arloa uztartzea errazteko neurriak diagnostikatzeko, horien gaineko trebakuntza emateko eta adostutako neurriak ezartzeko beharrezko bitarteko ekonomikoak eta giza baliabideak izatea bermatzea.
- 5.3.2.4 Hirigintza plangintza eta diseinuan bizitza pertsonala, familia bizitza eta lan arloa uztartzeko helburua sartzeko irizpideak ezartzea, bai espazio publiko berriak sortzerakoan bai egungoak egokitzeko orduan; bereziki familia edo/eta mendekotasun egoeran dauden



pertsonak zaintzea eta pertsonen autonomia garatzea sustatzen duten irizpideak ezartzea bilatuko da.

- 5.3.2.5 Hirigintza eta mugikortasun planetan aldez aurreko genero eraginaren azterketa egiteko udal arteko konpromiso bat sustatzea; genero eraginaren azterketa hori erantzukidetasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspuntutik egin behar da.



III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

6. PROGRAMA: SENSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

6.1 HELBURU ESTRATEGIKOA. INDARKERIARIK GABEKO PORTAERA E REDUAK BULTZATZEA

6.1.1 Pertsonak euren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak hedabideetatik baztertzea, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeriaz hartzen edota nolabait bultzatzen dituztenak ere.

6.1.2 Emakumeen aurkako indarkeria agerrarazten duten programa eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitzea, baita prebenitzen laguntzen dutenena eta indarkeriarik gabeko gatazken konponbidea sustatzen dutenena ere.

6.1.3. Sentsibilizazio eta prebentzio jardueretan gizonek gehiago parte hartzea.

6.1.4. Gizarteak, eta bereziki gazteenek, genero indarkeriaz duen pertzepzioa areagotzea, batez ere indarkeria mota sotilenei eta gutxien ikusten direnei dagokionez (mikroindarkeria).

6.2 HELBURU ESTRATEGIKOA. PORTAERA BORTITZEN PREBENTZIOA HOBETZEA

6.2.1. Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako genero indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko.

6.2.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren ezagutza handiagoa erraztuko duten azterketak eta ikerketak egitea, programa eta neurri berriak diseinatzea eta indarkeria deuseztatzeko abian jarritako neurrien eraginkortasuna aztertzea, diskriminazio anitzarekin zerikusia duten faktoreak kontuan hartuta.

6.2.3. Emakumeak seguru sentitzen ez diren lekuak identifikatzen dituzten eta horiek kontrolatzeko neurriak hartzen dituzten udalerrien kopurua handitzea, eta emakumeak seguru sentitzen ez diren leku berriak sortzea saihesteko irizpideak ezartzea.

6.2.4. Eraso sexisten alorrean prebentzio eta ekintza protokoloak ezartzen dituzten erakunde pribatu eta publikoak gehitzea, biztanleria okupatuko proportzio handienak dituzten jarduerak lehenetsiz, sexu jazarpen hori azaleratzeko eta gutxitzeko.



7. PROGRAMA: ARRETA

7.1 HE LBUURU E STRATEGIKOA. PO RTAERA B ORTITZAK G ARAIZ HAUTEMATEA E TA INFORMAZIOA ZABALTZEA

- 7.1.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren hautemate goiztiarra handitzea era proaktiboan jardungo duten hezkuntza, osasun, polizia, epaitegi eta gizarte zerbitzuetako profesional kopurua areagotuta, eta ezarritako protokoloen araberako parte-hartzea eginez.
- 7.1.2. Indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa eskaintzea erabakiak hartu eta itxaropenak egokitu ditzaten, arreta integraleko prozesua baino lehen, prozesua gauzatzen den bitartean eta ondoren, laguntza baliabideei eta prozesuei, prozesu juridikoei, sanitarioei eta poliziarekin loturikoei buruzko informazioa hizkera argi eta ulergarrian emateko gai diren profesionalen kopurua areagotuta.
- 7.1.3. Administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta baliabideak erabiltzea erabakitzen duten emakumeen kopurua areagotzea, arreta berezia eskainita zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenei, haien informazioarekiko eskuragarritasuna areagotuta eta hobetuta.

7.2. HELBURU ESTRATEGIKOA B IKTIMA D IREN EMA KUMEEN B ABESA ET A A RRETA OSOA BERMATZEA

- 7.2.1. Emakumeen aurkako indarkeria kasuetan arreta eta jardun protokoloen eraginpean dauden pertsonen kopurua handitzea, emakumeen egoerei egokituta, eta emakume gazteen egoerari arreta berezia eskainita.
- 7.2.2. Hortaz, beharrezkoa izango da arriskua duten taldeen premia egoeretatik edo diskriminazio anitzetik eratorritako egoerei erantzuteko behar adinako baliabideak dituzten zerbitzuak pixkanaka areagotzea.
- 7.2.3. Emakumeen aurkako indarkeria biktimen laguntza ekonomiko beharren estaldura bermatzea, haien izapideak arinduz.
- 7.2.4. Emakumeek genero indarkeria egoeran ematen duten denbora murriztea.
- 7.2.5. Edozein genero indarkeriaren biktima diren emakumeen segurtasuna bermatzea arreta integralaren fase guztietan.
- 7.2.6. Indarkeriaren biktima diren eta hala eskatzen duten emakumeen etxebizitza eskaerak estaltzea, babes ofizialeko etxebizitza lortzeko lehentasuna emanez edota etxebizitza lortzeko bestelako edozer abantailaren bitartez.
- 7.2.7. Indarkeriaren biktima diren emakumeen laneratzea bermatzea, hala behar badute, laneratzeko programak haien premiatara egokituz eta beren zaintzapean dauden pertsonak zerbitzu soziokomunitarioetan sartzeari lehentasuna emanez.



- 7.2.8 Genero indarkeriaren biktimei arreta emateko prozesuetan kalitate sistema bat ezartzea, haien eraginkortasunaren eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa eginez.
- 7.2.9. Lurraldeen eta udalerrien artean arretaren kalitatean eta emakumeen aurkako indarkeriarekin loturiko laguntzetan eta baliabide hornikuntzan dauden ezberdintasunak murriztea, arreta berezia jarrita landa guneetako udalerriei.



6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

6.1 HELBURU ESTRATEGIKOA. INDARKERIARIK GABEKO PORTAERA EREDUAK BULTZATZEA

6.1.1 Pertsonak euren sexuaren aurrerakoa giza duintasun gehiago emateko dutela adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak hedabideetatik baztertzea, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arrazakeriaz hartzen emateko duta nolabait bultzatzen dituztenak ere.

- 6.1.1.1 Komunikabide publiko eta pribatuetako profesionalei irudi eta eduki sexistak identifikatzeko trebakuntza ematea, bereziki emakumeen aurkako indarkeria ziritu edo bultzatzen dutenak edota behar besteko garrantzia ematen ez diotenak; hizkuntza eta irudiak modu ez sexistan erabiltzeak duen garrantziaren inguruko trebakuntza ere sustatuko da, baita berdintasun printzipioarekin bat egiten duten edukiak erabiltzeko bitartekoen eta metodologiaren gainekoa ere.
- 6.1.1.2 Publizitatea onartzeko irizpideak eta emakumeentzako iraingarriak edo/eta baztertzailak diren irudi edo mezuak ez erabiltzeko betebeharra konplitzen dela bermatzea, horretarako dauden bitarteko arauemaileak baliatuz, bereziki emakumeen aurkako indarkeria ziritu edo bultzatzen den kasuetan edo behar besteko garrantzia ematen ez zaion kasuetan.
- 6.1.1.3 Komunikabide pribatuei zuzendutako elkarlan eta laguntza bideak ezartzea irudi eta edukien emisioan generori lotutako jardunbide diskriminatzaileak saihesteko, hizkuntzaren erabilera sexista ekiditeko, eta, batik bat, emakumeen aurkako indarkeria ziritzen edo bultzatzen duten edo behar besteko garrantzia ematen ez dioten edukiak zuzentzeko.
- 6.1.1.4 Titulartasun publiko zein pribatuko komunikabideetan hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista eta eduki sexistak antzemateko ikerketak egitea, bereziki emakumeen aurkako indarkeria ziritzen edo bultzatzen duten edo behar besteko garrantzia ematen ez dioten edukiak hautemateko.
- 6.1.1.5 Emakumeen kontrako indarkeriaren eta haren manifestazioen erroen inguruko sentsibilizazio kanpainak egitea herritarrentzat, batez ere esparru sozialean, kulturean eta mediatikoan, betiere irudi eta eduki sexistak identifikatu eta salatzea bultzatzeko asmoz.



- 6.1.1.6 Gurasoei hizkuntza, irudi eta eduki sexistak identifikatzeko eta seme-alabentzako programazioa aukeratzeko orduan hezkidetzan oinarritutako irizpideak hartzeko trebakuntza ematea.
- 6.1.1.7 Hezkuntza arautuko zein arautu gabeko profesionaleri hizkuntza, irudi eta eduki sexistak identifikatzeko eta hezkidetzan oinarritutako irizpideak kontuan dituzten materialak aukeratzeko trebakuntza ematea.
- 6.1.1.8 Euskal Autonomia Erkidegoan generoan eta komunikazioan espezializatutako lantalde bat eratzea komunikabideetan emanaldi eta eduki sexistak izatea saihesteko, bereziki emakumearen aurkako indarkeria sustatzen dutenak; emanaldi edo eduki desagokiak antzematen direnean jarraitu beharreko prozedurak ere bideratuko dituen talde horrek.

6.1.2 Emakumeen aurkako indarkeria gerrarazten duten programak eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitzea, baita prebenitzen laguntzen dutenena eta indarkeriarik gabeko gatazken konponbidea sustatzen dutenena ere.

- 6.1.2.1 Emakumearen aurkako indarkeria saihesteko eta ezabatzeko kanpainak egitea, betiere egiten diren eremuak eta hartzaile diren herritarrak hedatuz.
- 6.1.2.2 Politikariek, enpresariek, sindikatuak, komunikabideak eta elkarteak oro harenero indarkeriaren aurkako jarrera irmoa azaltzea sustatuko duten informazio eta sentsibilizazio jarduerak egitea. Horiek guztiak beren inplikazio eta konpromisoa ikusarazten duten kanpaina eta jardueretan parte hartzea sustatzea.
- 6.1.2.3 Berdintasunean oinarritutako harremanak eta gatazka indarkeria erabili gabe konpontzea sustatuko duen kultura aldaketa bultzatzeko programak garatzea hezkuntza arautuan gurasoen, ikasleen eta irakasleen partaidetzarekin.
- 6.1.2.4 Berdintasunean oinarritutako harremanak eta gatazka indarkeria erabili gabe konpontzea sustatuko duen kultura aldaketa bultzatzeko programak garatzea hezkuntza ez arautuan.

6.1.3. Sentsibilizazio eta prebentzio jardueretan gizonek gehiago parte hartzea.

- 6.1.3.1 Jokabide bortitzak eragiten dituzten estereotipo eta gizarte eta kultur arloko iritziak identifikatzea desagerrarazteko asmoz. Esku-hartze eremu ezberdinetan uste eta estereotipo horiek zein jarrera eta jokabide bortitzak arbuizatzen dituzten eredu maskulinoak sortzea.



- 6.1.3.2 Gizonezkoek jokabide ez bortitzak zein gatazkak indarkeria erabili gabe konpontzea sustatzen duten programetan parte hartzea bultzatzea, baita indarkeriaren aurkako inplikazio eta konpromisoa erakusteko jardueretan ere.
- 6.1.3.3 Gizonen partaidetza maila handiko taldeei zuzendutako trebakuntza espezifikoko moduluak eskaintzea maskulinitate tradizionalaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko harremana ikusarazteko, betiere jarrera eta jokabide aldaketa sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko asmoz.
- 6.1.3.4 Gizonei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egitea emakumeen aurkako indarkeriaren zikloa ezagutarazteko, betiere ziklo horren fase ezberdinak identifikatzeko modua izan dezaten jarrera eta jokabideak aldatzeko lehen urrats gisa.

6.1.4. Gizarteak, eta bereziki gazteenek, genero indarkeriaz duen pertzepzioa areagotzea, batez ere indarkeria mota sotilenei eta gutxien ikusten direnei dagokionez (mikroindarkeria).

- 6.1.4.1 Mikroindarkeriak zer diren eta gazteen artean nola adierazten diren ezagutzeko analisi eta ikerketak egitea.
- 6.1.4.2 ~~Arre~~ harreman afektibo-sexualen eta gazteek horiek bizitzeko dituzten moduen gaineko ikerketak egitea, emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartzeko planak egiteko asmoz.
- 6.1.4.3 Mikroindarkerien gainean egindako analisiak hedatzea eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio kanpainetan, jardueretan eta programetan erabiltzea.
- 6.1.4.4 Mikroindarkeriak ikusarazteko eta prebenitzeko sentsibilizazio kanpainak, programak eta jarduerak indarrean jartzea gazteen presentzia handia den eremuetan, besteak beste:
- Hezkuntza arautu eta ez arautua.
 - Jai herrikoiak eta diskotekak.
 - Aisialdiko jarduerak.
 - Kirol jarduerak.
 - Unibertsitateak.
- 6.1.4.5 Bigarren hezkuntzako zein unibertsitateko irakasleei gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria nola gauzatzen den jakinarazteko trebakuntza ematea, betiere modu prebentiboan esku hartzeko helburuarekin.



6.2 HELBURU ESTRATEGIKOA. PORTAERA BORTITZEN PREBENTZIOA HOBETZEA

6.2.1. Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako genero indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko.

- 6.2.1.1 EAEko Genero Indarkeria Behatokia abian jartzea, baita datuak bildu, aztertu eta usiatzeko beste bitarteko batzuk ere; helburua datu eta informazio bilketaren koordinazioa sustatzea eta estatistiken eta analisisen emaitzak hedatzea da.
- 6.2.1.2 Egun dauden datu estatistikoak, horiek sustatzen dituzten erakundeak eta informazioa biltzeko sistemen analisia egitea beren egoera, ezaugarriak eta homogenizazio aukerak zehazteko.
- 6.2.1.3 Emakumeen aurkako indarkeria kasuen gaineko informazio estatistikoaren bilketa homogeneizatzeko eta sistematizatzeko jarduerak abian jartzea.

6.2.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren ezagutza handiagoa erraztuko duten azterketak eta ikerketak egitea, programa eta neurri berriak diseinatzea eta indarkeria deuseztatzeko abian jarritako neurrien eraginkortasuna aztertzea, diskriminazio anitzarekin zerikusia duten faktoreak kontuan hartuta.

- 6.2.2.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko azterketa eta ikerketak egitea: kausak, ondorioak, bizipenak, eragileak, beharrak, eskaerak, diskriminazio anizkoitza indarkeria egoeretan...
- 6.2.2.2 Jarduerak abian jarri aurretik *ex ante* ebaluazioak, programa pilotuak edo alde aurreko diagnostikoak egitea.
- 6.2.2.3 Egungo esku-hartze programen eraginkortasuna, indarguneak eta hobetu beharreko arloak aztertzeko lantaldeak sortzea. Ezarri beharreko hobekuntza proposamenak eta izandako eragina egiaztatzen jarraipen bitartekoak lantzea.
- 6.2.2.4 Indarkeria egoerei erantzuna emateko dauden bitartekoen kudeaketa eta eraginkortasunari buruzko ebaluazioak egitea eta hedatzea, baita bortxa egoerak desagerrarazteko abian jarritako baliabideena ere; diskriminazio anizkoitza kontuan izan behar da betiere.
- 6.2.2.5 Emakumeen aurkako indarkeriaren eta diskriminazio anizkoitzaren arteko harremana aztertzeko jardunaldiak egitea. Ateratako ezagutzari izaera praktikoa ematea esku hartze protokoloetan sartzeko neurriak proposatuz.



6.2.3. Emakumeak seguru sentitzen ez diren lekuak identifikatzen dituzten eta horiek kontrolatzeko neurriak hartzen dituzten udalerrien kopurua handitzea, eta emakumeak seguru sentitzen ez diren leku berriak sortzea saihesteko irizpideak ezartzea.

- 6.2.3.1 Emakumeentzat arriskutsuak diren lekuen mapa egin duten udalerrien zerrenda egin eta beraien ekarpenak jasotzea (metodologiak, ondorioak, neurri zuzentzaileak...), betiere beste udalerrri batzuentzat bizigarri izan daitezen gomendio katalogo baten bitartez.
- 6.2.3.2 Gune publikoetan gauzatutako emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako jarduera deliktiboen gaineko datu eta txostenak aztertzea. Horretarako beharrezko bitarteko guztiak izango direla bermatzea, betiere diagnostikotik transformazioetara bitarteko prozesu guztia aurrera eramán ahal izateko.
- 6.2.3.3 Hirigintza eta gune publikoak oro har diseinatzeko ardura duten pertsonen emakumeentzako diseinu seguru batekin bat egiten duten neurriak ezartzeko zein egungo gune arriskutsuak egokitzeko trebakuntza ematea.
- 6.2.3.4 Udalerrietan emakumeentzako dauden leku arriskutsuen gaineko kexak eta iradokizunak jasotzeko zerbitzu espezifikoa sortzea, jasotako informazioa aztertzea eta gune horiek egokitzeko konpromiso publikoak hartzea.
- 6.2.3.5 Emakumeak gune publikoetan seguru izateko irizpideak ezartzea, bai hobekuntza edo eraldaketa esku-hartzeetan ezartzeko bai gune berriak eraikitzerakoan kontuan izateko. Irizpide horiek betetzen direla eta jasotako kexak eta iradokizunak kontuan izaten direla bermatzeko neurriak hartzea.
- 6.2.3.6 Hirigintza diseinatzeko, planifikatzeko eta hobetzeko ardura duten profesionalen eta genero indarkeria pairatzen duten emakumeen arreta eta babesean lan egiten dutenen arteko komunikazioa eta elkarlana sustatzeko bitarteko eta guneak ezartzea.
- 6.2.3.7 Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sareari (Berdinsarea) gune publikoetan emandako emakumeen aurkako indarkeria kasuei aurre egiteko onartutako bitarteko, programa eta neurriei buruzko informazioa ematea, baita emakumeen segurtasuna zein segurtasun sententzioa sustatzeko hartutako ena ere.



6.2.4. E raso sexistaren aitorrean prebentzio eta aurre hartze protokoloak ezartzen dituzten erakunde pribatu eta publikoak gehitzea, biztanleria oinokokoaren proportzio handienak dituzten jarduerak lortzeko, sexu jazarpen hori azaleratzeko eta gutxitzeko.

- 6.2.4.1 Jazarpen sexistaren aitorpen, eragin eta maiztasunaren gaineko azterketak egitea: duen bilakaeraren jarraipena, zer-nolako egoeretan ematen den, biktimak jasaten dituen ondorioak, erasoak jasotzen diren lekuaren arduraren duen erakundeak hartzen diren jarrera...
- 6.2.4.2 Jazarpen sexistaren eragina eta maiztasuna zenbatzea ahalbidetuko duten adierazleak identifikatzea.
- 6.2.4.3 Enpresa publiko eta pribatuen artean, sindikatuen, enpresariaren erakundearen eta langileen artean jazarpen sexistaren alorrean dauden arau guztiak hedatzea.
- 6.2.4.4 Jazarpen sexistaren zer den eta zer ez azaltzen duten, eman behar zaion tratamendua zehazten duten eta ezarri beharreko aurre hartze eta interbentzio protokolo orokorrak jasotzen dituzten gidak, ikus-entzunezko materialak... egin eta enpresen, sindikatuen eta enpresariaren erakundearen artean banatzea erakunde bakoitzak bere egoera zehatzera egoki dezan.
- 6.2.4.5 Jazarpen sexistaren prebentzio eta aurre hartze protokoloak landu eta ezartzea. Protokolo horiek jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ezartzea.
- 6.2.4.6 Jazarpen sexistari buruzko trebakuntza espezifikoak ematea erakunde publiko eta pribatuetan giza baliabideak kudeatzen dituztenei, enpresariaren elkarrekin kideei eta prebentzio ordezkariari.
- 6.2.4.7 Lan ikuskaritzaileei trebakuntza eskaintzea jazarpen arloan bere ikuskaritza lana aurrera eramateko gai izan daitezkeen. Jazarpen sexistaren arauak betetzeko eskakizuna lehentasunezko helburu bezala ezartzea Lan Ikuskaritzan.
- 6.2.4.8 Jazarpen sexistaren ikusarazteko eta sentibilizazioa lantzeko kanpainak egitea lan arloan, betiere diskriminazio anizkoitz egoeran dauden edo egoera horretan izateko arriskua duten emakumeen artean gerta daitezkeen jazarpenaren ezaugarri bereziak kontuan izanik.



7. PROGRAMA: ARRETA

7.1 HELBURU ESTRATE GIKOA. PORTAERA B ORTITZAK GARAIZ H AUTEMATEA ETA INFORMAZIOA ZABALTzea

7.1.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren h autemate g oiztiarra handitzea era proaktiboan j ardungo du ten h ezkuntza, o sasun, po lizia, e paitegi e ta gi zarte zerbitzuetako p ofesional kopurua areagotuta, eta ez arritako p rotokoloen araberako parte-hartzea eginez.

- 7.1.1.1 Hezkuntzan, osasungintzan, indar polizialean, arlo judizialean, gizarte zerbitzuetan eta lan zerbitzuetan aritzen diren profesionalen artean sentsibilizazio lana egitea emakumeen aurkako indarkeria desberdintasunaren ondoriozko gizarte arazoa dela ezagutarazteko.
- 7.1.1.2 Hezkuntzan, osasungintzan, indar polizialean, arlo judizialean eta gizarte arloan lan egiten duten profesionali emakumeen aurkako indarkeriari eta egun sistema bakoitzean zuzeneko esku hartzerako ezarrita dauden protokolei buruzko trebakuntza eskaintzea. Genero ikuspegia aipatutako profesionalen etengabeko trebakuntzan sartzea.
- 7.1.1.3 Emakumeen aurkako indarkeria kasuak hautemateko, eman beharreko arreta ezagutarazteko eta emakumeak zein zerbitzutara bideratu behar diren jakinarazteko gida espezifikoak eta bestelako materialak prestatzea, baita dagokion profesionalen zein herritarren artean hedatzea ere.
- 7.1.1.4 Emakumeen aurkako indarkeria kasuen hautemate goiztiarrean inplikaturako profesionalen arteko komunikazioa hobetzea beren zereginak elkar lagunduz eta modu eraginkorragoan betetzeko aukera izan dezaten.
- 7.1.1.5 Indarkeriaren hautemate goiztiarrerako dauden esku hartze protokoloak berraztertzea, eta, ondoren, horiek hobetzeko gomendioak ezartzea.



7.1.2. In darkeriaren biktima diren emakumeei babesa eskaintzea erabakiak hartu eta itxaropenak egokitu dituzten, arreta integralko prozesua bai no lehen, prozesua gauzatu den bitartean eta ondoren, laguntza baliabideei eta prozesuei, prozesu juridikoei, s anitariei eta politziarekin loturikoei buruzko informazioa hori izker argi eta ulergarrian emateko gai diren profesionalen kopurua areagotuta.

- 7.1.2.1 Genero indarkeria jasan duten emakumeen eskarien eta beharren gaineko azterketa bat egitea, baita arreta zerbitzuetara jotzen dutenean jasotzen duten informazioaren gainekoa ere.
- 7.1.2.2 Genero indarkeria jasan duten emakumeei eskura dituzten zerbitzuen eta prozeduren funtzionamenduari buruzko informazio integrala ematea, betiere informazio hori biktimen nahi, eskaera eta hizkuntzari egokitu eta informazioa guztiontzat irisgarri izatea sustatuz (hizkuntza ezberdinak, maila kulturala, minusbaliotasunak...).
- 7.1.2.3 Arreta integralko prozesuan lan egiten duten profesionalen trebakuntza ematea informazioa nola eman behar duten jakin dezaten, betiere indarkeriaren biktima diren emakumeek arreta prozesu guztian beharrezko informazioa jaso dezaten bermatzeko helburuarekin; erabiltzaileek ematen zaien informazioa uler dezaten ahalegin berezia egin behar da.
- 7.1.2.4 Inplikaturako profesionalen artean informazioa trukatzeko komunikazioa hobetzeko eta bakoitzak besteek egiten duten lana hobeto ezagutzeko.

7.1.3. Administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta baliabideak erabiltzea erabakitzen duten emakumeen kopurua areagotzea, arreta berezia eskainita zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenei, haien informazioarekiko eskuragarritasuna areagotuta eta hobetuta.

- 7.1.3.1 Administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta baliabideak emakumeek zergatik ez dituzten erabiltzen azaltzen duten arrazoiak ezagutzeko azterketa egitea. Arreta eta babes zerbitzuetara jotzeko zailtasun handienak dituzten emakume kolektiboak identifikatzea, eta, izandako emaitzak kontuan izanik, guztiek informazioa, zerbitzuak eta baliabideak jasotzeko jarduera espezifikoak diseinatzea.
- 7.1.3.2 Hautemandako indarkeria egoera ezberdinak ezagutaraztea, baita kasu horiei aurre egiteko jarritako baliabideak ere. Genero indarkeria jasan duten eta eredutzat har daitezkeen emakumeen adibideak baliatzea jasotako arreta positiboa nabarmen dezaten; emakume horiek emakume kolektibo ezberdinen ordezkari izan beharra dute.
- 7.1.3.3 Indarkeria jasan duten emakumeei ematen zaien arretaren arloan dauden erakundeen arteko akordioak ezagutaraztea herritarrentzat



ulergarria izango den mintzaira erabilia, betiere informazio instituzionala gutxien jasotzen duten kolektiboak kontuan izanik.

- 7.1.3.4 EAEko udalerrietan indarkeria jasan duten emakumeei arreta emateko dauden jarduera protokoloak ezagutaraztea, eskuragarri dauden baliabide eta zerbitzuak herritarrentzat hurbilekoak direla nabarmenduz.
- 7.1.3.5 Hezkuntzan, osasungintzan, indar polizialean, arlo judizialean, gizarte zerbitzuetan, lan zerbitzuetan eta abarretan ematen den arreta baliatzea genero indarkeriako biktimentzako dauden arreta eta babes bitartekoen informazio espezifiko emateko.
- 7.1.3.6 Sentsibilizazio kanpaina eraginkorrak egitea indarkeria egoerak jasaten ari diren emakumeek salaketak jartzea sustatzeko.
- 7.1.3.7 Diskriminazio anizkoitz egoeran dauden edo izateko arriskuan dauden emakumeek dituzten eragozpenak eta zailtasunak identifikatzea informazioa jasotzeko dituzten arazoei irtenbidea bilatzeko eta dauden zerbitzu eta bitartekoak beraien beharretara egokitzeko.
- 7.1.3.8 Egun dauden bitarteko eta zerbitzuak ezagutarazteko gune edo jarduerak identifikatzea jada erabiltzen diren baliabideak (hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak...) osatzeko.
- 7.1.3.9 Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eta babesa emateko ardura duten profesionalen gaitasun soziokomunikatiboaren gaineko trebakuntza ematea, biktimekin duten harremana eta ematen dieten arreta eraginkorrak izan daitezen sustatzeko; benetan ulertzen dituztela sentitu behar dute emakumeek.

7.2. H ELBURU EST RATEGIKOAK B IKTIMA D IREN E MAKUMEEN B ABESA E TA AR RETA OSOA BERMATZEA

7.2.1. Emakumeen aurkako indarkeria kasuetan arreta eta jardun protokoloen eraginpean dauden pertsonen kopurua handitzea, emakumeen egoerari egokitu, eta emakume gazteen egoerari arreta berezia eskainita.

- 7.2.1.1 Emakume gazteen aurkako indarkeria aztertzea, baita biktima horiek arreta zerbitzuak jasotzeko dituzten zailtasunak eta eragozpenak ere; helburua protokoloetan beharrezkoak diren aldaketak egin ahal izatea da.
- 7.2.1.2 Gazteen artean emakumeen aurkako indarkeriaren iraupenaren eta ondorioen gaineko sentsibilizazio jarduerak egitea. Herritarren eskura, tartean gazteak, dauden protokolo eta zerbitzuen berri ematea.



- 7.2.1.3 Egungo zerbitzuek, baliabideek eta arreta eta esku-hartze protokoloek dituzten gabeziak aztertzea diskriminazio anizkoitz egoeran dauden edo izateko arriskuan diren emakumeek dituzten behar espezifikoek hobeto erantzun ahal izateko.
- 7.2.1.4 Diskriminazio anizkoitz egoeran dauden edo izateko arriskuan diren emakumeek indarkeriarekin lotuta dituzten behar espezifikoek buruzko trebakuntza ematea dagokion profesionalen beren esku-hartzea ahalik eta gehien egokitzeko modua izan dezaten.
- 7.2.1.5 EAEko udalerrietan eta lurralde historikoetan udal eta foru protokoloak ezartzeko oztopoak aztertzea eta neurri zuzentzaileak ezartzea. Indarkeriaren biktimei arreta emateko udal eta foru protokoloak abian dituzten udalerrak eta era horretako protokoloak indarrean jartzeko interesa duten erakundeen arteko bilerak egitea beraien esperientziak parteka ditzaten, betiere praktika onak hedatu eta hobetu daitezkeen arlo guztiak aztertzeko asmoz.
- 7.2.1.6 Berdintasun arloan espezializatutako teknikariei zein dagokion udaletako eta foru aldundietako bestelako teknikariei indarkeriaren biktimek artatzeko udal eta foru protokoloak garatzeko eta sustatzeko trebakuntza ematea.
- 7.2.1.7 Indarkeriaren biktimei arreta emateko udal eta foru protokoloak diseinatzea eta ezartzea.
- 7.2.1.8 Indarkeriaren biktimei arreta emateko protokoloekin lotuta indarrean jarritako jardueren emaitzen eta eraginkortasunaren jarraipena egitea, bereziki diskriminazio anizkoitz egoeran dauden edo izateko arriskuan dauden emakumeen kasuan.

7.2.2. Hortaz, beharrezkoa izango da arriskua duten taldeen premia egoeretatik edo diskriminazioa nitzetik eratorritako egoerei erantzuteko behar adina baliabideak dituzten zerbitzuak pixkanaka areagotzea.

- 7.2.2.1 Diskriminazio anizkoitz egoeran dauden edo izateko arriskuan dauden emakume kolektiboaren eskaera eta beharrak identifikatzea genero indarkeriaren biktimei arreta emateko egun dauden bitarteko eta zerbitzuak egokitu ahal izateko.
- 7.2.2.2 Indarkeriaren biktima diren emakumeek arreta eskaintzeko zerbitzuak kokatuta dauden eraikinetan dauden oztopo arkitektonikoak ezabatzea.
- 7.2.2.3 Indarkeriaren biktima diren emakume etorkinek edo minusbaliotasunen bat dutenek jasotzen duten arreta hobetzeko kultur bitartekaritzako zerbitzuak, itzulpen zerbitzuak eta zeinu hizkuntzako interpretazio zerbitzuak eskaintzea.



- 7.2.2.4 Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eta babes emateko ardura duten profesionalen diskriminazio anizkoitz egoeran dauden edo izateko arriskuan diren emakumeek dituzten behar espezifikoak buruzko trebakuntza ematea.
- 7.2.2.5 Indarkeriaren biktima diren eta diskriminazio anizkoitz egoeran dauden edo izateko arriskuan diren emakumeentzako esku hartze estrategia espezifikoak identifikatu eta garatzea arreta eta babes egokia jasotzen dutela bermatzeko.

7.2.3. Emakumeen aurkako indarkeria biktimen laguntza ekonomiko beharren estaldura bermatzea, haien izapideak arinduz.

- 7.2.3.1 Indarkeriaren biktima diren emakumeek jasotzen dituzten laguntzen estaldura mailaren gaineko azterketa egitea eta dauden eskaerak jasotzea.
- 7.2.3.2 Laguntzak emateko dauden irizpideak berraztertzea laguntzak jasotzerik ez duten herritar taldeak zehazteko, eta, jarraian, ematen den laguntzaren estaldura maila hobetzeko neurri zuzentzaileak ezartzeko.
- 7.2.3.3 Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako dauden laguntza ekonomikoaren gaineko informazioa sustatzea horiek jasotzea errazteko asmoz.

7.2.4. Emakumeek genero indarkeria egoeran ematen duten denbora murriztea.

- 7.2.4.1 Egungo prozeduren eta arreta eta babes zerbitzu eta bitartekoen analisi sakona egitea genero indarkeria jasaten igarotako denbora murriztu eta normalkuntza prozesuak bizkortzeko asmoz (lan bilaketa, epailearen erabakiak, izapideak, laguntza ekonomikoaren esleipena, arreta integrala...).
- 7.2.4.2 Indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta eta babes zerbitzuetan mekanismo eraginkorrak ezartzea biktimen arreta eta babes prozesuan jarraitzea sustatzeko. Zerbitzuek emakumeen beharrei behar bezala erantzuteko izan behar dituzten ezaugarriak zehaztea.
- 7.2.4.3 Genero indarkeria egoerak jasaten dituzten emakumeek arreta eta babes zerbitzuetara lehenbailehen jo dezaten informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea.
- 7.2.4.4 Gizon erasotzaileekin lan egitea (arreta psikologikoa, berreziketa...) jarrera aldatzea izan dezaten eta indarkeriarik gabeko jokabideak har ditzaten.



7.2.5. E dozein g enero i ndarkeriaren b iktima d iren em akumeen segurtasuna bermatzea arreta integralaren fase guztietan.

- 7.2.5.1 Arreta eta babes zerbitzu eta bitartekoek emakumeen segurtasuna bermatzerako orduan eskaintzen duten estaldura mailaren gaineko analisia egitea, betiere biktimen beraien balorazioa jasota; helburua hobetu beharreko arloak zeintzuk diren ezagutzea da beharrezko aldaketak egin ahal izateko.
- 7.2.5.2 Adituen balorazioak eta irizpideak jasotzea genero indarkeriaren biktima diren emakumeen segurtasuna bermatzeko indartu beharreko arloak zeintzuk diren zehazteko.
- 7.2.5.3 Indarkeriaren biktima diren emakumeei beren burua babesten ikas dezaten trebakuntza ematea.
- 7.2.5.4 Erasotzaileak uneoro urruntze aginduak zorrotz betetzen dituela ziurtatzeko bitartekoak jartzea.
- 7.2.5.5 Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza psikologikoa indartzea zaurgarritasuna eta zaurgarritasun sentrazioa murriztu eta indarkeria kasuak ematea eragin dezaketen egoerei aurre egiteko indar psikologikoa eta defentsa mekanismoak areagotzeko.

7.2.6. Indarkeriaren biktima diren eta hala eskatzen duten emakumeen etxebizitza eskakera estaltzea, ba bes ofizialeko etxebizitza lortzeko lehenitasuna emanez edota etxebizitza lortzeko bestelako edozer abantailaren bitartez.

- 7.2.6.1 Gizarte laguntzako etxebizitzaren eta babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa eta esleipenetan indarkeriaren biktima diren emakumeentzako kupo berezi bat mantentzea.
- 7.2.6.2 Indarkeriaren biktima diren emakumeen etxebizitza eskakera jarraipena egitea estali gabeko beharrak zehazteko eta gabezia horiei aurre egiteko mekanismoak ezartzeko.
- 7.2.6.3 Indarkeriaren biktima diren, abegi etxeetako gehieneko egonaldi epeak bete dituzten eta bestelako ostaturik ez duten emakumeei zuzenean alokairuzko etxebizitzak esleitzea.
- 7.2.6.4 Etxebizitza bat esleitu artean abegi etxeak edo bestelako bitarteko egokiak eskuragarri izatea bermatzea.



7.2.7. Indarkeriaren biktima diren emakumeen laneratzea bermatzea, hala behar badute, laneratzeke programak haien proiektuak eta bereziki eraginkortasunaren eta eraginkortasunaren zehaztasunaren erbitzu soziokomunitarioetan sartzeari lehentasuna eman.

- 7.2.7.1 Indarkeriaren biktima diren emakumeek lana aurkitzeko trebakuntza ikastaroetan, enplegu-trebakuntza programetan, lan programetan eta bestelako lan eskaintzetan lehentasuna izatea bermatzea.
- 7.2.7.2 Indarkeriaren biktima diren emakumeen ardurapean dauden mendeko pertsonen arreta emateko zerbitzuak eta neurriak artikulatzea emakume horiek lana bilatzeko trebakuntza ikastaroetan, enplegu-trebakuntza programetan... parte hartu ahal izatea errazteko.
- 7.2.7.3 Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen artean eman daitezkeen behar eta egoera anitzetara egokitutako lan munduan txertatzeko ibilbide pertsonalizatuak diseinatzea.

7.2.8 Genero indarkeriaren biktimiei arreta emateko prozesuetan kalitate sistema bat ezartzea, haien eraginkortasunaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa eginez.

- 7.2.8.1 Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eta babesa emateko prozesuen kalitatea aztertzea, betiere egokientzat jotako adierazleak adostuz eta ikertuz, besteak beste: arreta jaso duten pertsonen kopurua, jasotako zerbitzuaren gaineko iritzia, indarrean diren protokoloak jarraituz emandako zerbitzuak, biolentzia prozesuak atzean uztea lortzen duten emakumeen kopurua, diskriminazio anizkoitzari lotutako behar espezifikoak...
- 7.2.8.2 Jarduera, jarraipen eta ebaluazio planak ezartzea biolentziaren biktima diren emakumeen arreta prozesuen kalitatea eta eraginkortasuna etengabe hobetzeko asmoz.
- 7.2.8.3 Beste erakunde estatal eta autonomiko batzuekin elkarlanean aritzea genero indarkeria jasan duten emakumeen arretako kudeaketa eta kalitate sistemak egiaztatuz edo partekatuz asmoz.

7.2.9. Lurraldeen eta udalerrien artean arretaren kalitatean eta emakumeen aurkako indarkeriarekin loturiko laguntzetan eta bereziki hornikuntzan dauden ezberdintasunak murriztea, arreta berezia jarrita landa guztiak udalerri.

- 7.2.9.1 Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan egun ematen diren lurralde eta udal mailako ezberdintasunak identifikatzeko analisia egitea.



- 7.2.9.2 Udal txikietan edo landa eremuetako udal eta herrixketan arreta zerbitzu eta bitartekoak jaso ahal izatea sustatzeko neurriak bilduko dituen plan bat ezartzea.
- 7.2.9.3 Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arretaren egoera lurraldeka eta udalka aztertzeke lantaldeak sortzea, betiere indarrean diren praktika onenak identifikatu eta gainontzeke udal eremuetako udalerriekin eta mankomunitateekin partekatzeko asmoz.

